

uk

259. zenbakia / 2014ko urriaren 22a



91 506 53 58 / www.renault.es

RENALUT CLIO

9.600€-an*

CLIO AUTHENTIQUE 1.2 16V 752P Basic Pack-urkin

MANTENIMENDUA DOAN 2 URTEZ

ARRISKU OROTARAKO ASEGIURUA DOAN URTEBETEZ

barcelona world race

PWE 6

• EDC KAXA AUTOMATIKOA

• ENERGY STOP&START MOTOREAK

• R-LINK: UKIPEN-PANTAILA NABIGATZAILEAREKIN ETA INTERNETEREKIN

DRIVE THE CHANGE

CLIO Berria gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,5 eta 6,3 bitartean. CO2 isuriak (g/km), 90 eta 144 bitartean.

*Eskaintza eta PSP gomendatua Perinitelan eta Balearetan, Clio Authentique 1.2 modelokarentzat, 16V 54 kW (75 ZP), Basic Pack-arekin. Barne daude BEZA, matxulazio-zerga, garrailo-zerga, RECSAk eskaintako promozioak eta PWE-6 Plana. Partikular eta autonomoztat da, betiere PWE-6 Planaren baldintzak betez gero eta finantzazioa Muestrevo bidez eginez gero RCI Banque SA Sucursal en España-rekin. Finantziaketaren gubueneko epea: 24 hilabete. Finantza beharrek gubueneko kopurua: 6.000 €. Opari diren alpeituko mantenimenduak 2 izango dira gehienez ere, 2 urtez edo 30.000 km egin arte (dehendabizi gertatzen dena). Arrisku orotarako aseguruia doan lehenengo urtean, 600 €-ko frankiziazekin, Mapfreekin kontratatuta. Mantenimendua eta seguruia RECSAren opari dira. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Eskaintza hau 2014/10/01etik 2014/10/31ra bitarte egindako eskaerentzat da. Irudiko modeloa: Renault Clio Dynamique Energy TCe 55S 66 kW (90 ZP) aukerakin (17"-ko aleaziozko hagunekin, pintura metalizatu berezia eta 1. mailako pertsonalizazio-packa); PSP gomendatua promozioak eta PWE-6 plana barne hartuta: 12.500 €. Ekipamenduak bertsoen araberaokak dira.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

Iparra Galdu Gabe

Solasaldia eta Bertso-saioa

Ipar-Hegoaren egoera, hartu-emanak, distantziak, euskararen osasuna, antzekotasunak, erronkak, zubiak... izango dituzte hizpide, berbetan lehenengo eta bertsotan ondoren

Xabi Payá

Odei Barroso

Urriaren 30ean (eguna) 19:30ean

Fadurako kafetegian

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoen 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoka Iturburu, Julen Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentsaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bitor Egurola, Armando Llamasas, K.Olete, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Non zer

4. PLAZA. Armando L.Lamosas.

5. IRUDIA. Leioa, 1936-45 ekitaldia.

6. FACEGUK. Domu Santu hurbil... zelan agur zaitzaten gura zenuke?

7. LEHEN ETA ORAIN. Galeako fortea.

8. URIBITAKORA. Peru Vidal Gurrutxaga.

9. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.

10. ELKARRIZKETA. Javier Quislan Garcia.

11. ERRETRATUA. Mertxe Perez Santos.

12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.

25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. TopaEguna, Derion.

28. ARGAZKIA. Berango, Karabinagetik.

30. BERBETAN. Maribel Quiñones “Martirio”.

34. FOTOGRAFIA. Gorka Larrea Ondarroa.

40. SAKONEAN. Liztor asiarra eskualdetik dabil.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Gaztezulo bideo-lehiaketa.

43. MUSIKA. Banden Lehia lehiaketa.

44. LIBURUAK. Lauaxeta olerki-lehiaketa.

45. KIROLAK. Punta Galeako olatu erraldioen txapelketa.

46. JENTILKOBA. Itsaslamia.

47. EUSKARAetaERAKUNDEAK. Euskararen sustapena eskualdean.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Kalabazin betea.

50. HOROSKOPOA.

51. KOMIKIA. Laurita Siles.

52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.

53. FLASH BACK. Antxoia-sardina bete txalupak Portu Zaharrean, 1957.

54. AITORMENAK. Enrike Rubiños Rezola.

Azala: Gorka Larrea Ondarroa

www.ukaldizkaria.biz

30 Martirio

Berbetan

Hilabete amaieran Leioan kontzertua eskainiko duela eta, Maribel Quiñones “Martirio”-gaz egin dugu berba

11 Mertxe Perez Santos

10 Javier Quislan Garcia

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....

Deiturak.....

Kalea/zenb.....

Herria.....

e-mail.....

Telefonoa.....

Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

UK 3

Armando Llamosas

> arkeologoa / uribekosta.wordpress.com-ko blogaria

Txatxarro iturria; galdutako ondare txikia bistan

Tosu kanpamenduko gazteek beste ekin-tza askoren artean, Martiturri estratan (estarta Getxon) zegoen iturria garbitu dute. An-tza denez, 1883an auzokideek eskatu zioten udalari iturria eraikitzeko. Udalak egin zien, urte hauetako hainbat ur eta saneamendu-egiturak bezala. Iturriak bi une adierazten dizkigu: batetik, 1883an egindako iturria: etxetxo errektangularra, zaindutako harlau-zaz egindakoa, ondo bukatuta; umila, baina estilozko erlaitz eta frontoiaz; eta adreiluz estalita; txukun eta polita, *malakateak* eta arteko iturriak bezala; bestetik, alboan, latsa-rria dago. Ez da lehenengoa, adituen arabera, XX. mendean porlanez berregin zuen uda-lak. Biek Kanderuerrekatik hartzen dute ura, *urbanitaontzat* desagertutako erreka, ordea, ezaguna eta funtsezkoa beste urteetan.

Txatxarro latsarria (horrela deitzen ei zu-en udalak) ez da izango Euskadiko monu-mentu handiena, UNESCOk munduko on-dare ere ez du izendatuko. Malakateak (sas-trakek eta utzikeriak suntsitu ezean), askoz garrantzitsuagoak izango dira, arkitekturaga-tik eta azpiegituragatik. Hala ere, Txatxarrok ondo azaltzen digu zer zen Andra Mari, Ge-txo, alegia: baserriz eta landaz betetako pai-saia; ortuak, behiak eta ganadua nonahi; emakume eta gizonen lana, eta haien beha-rrak; bizitza gogorra, zein lantsua. Azaltzen digu XIX. mendea, iraultza eta aldaketa han-diko mendea, udalaren papera (eta erantzun-a), saneamendu eta uraren azpiegiturak... Hau da, azaltzen digu ez itzultzeko joan zen aroa.

Txatxarro bota liteke, hondeamakina batek ordu erdian desagerraraz lezake, apar-kalekua, bus-geltokia, gutxi erabiltzen den eta ondo dimentsionatuta dagoen estrata edo errepidea zabal lezake... hamaika ideia sor litezke latsarria ordeztzeko; txarrena eta ten-tagarriena, agian, mendekua: “Tosuko gazte



astunek garbitu dutela? Bada, botako dugu eta izorratuko dira”. Aldiz, errazena man-tentzea da, ez da beharrezkoa ahalegin han-dirik, dudarik gabe, 1883an Getxoko alka-teak egin zuen baino askoz gutxiago: garbi-keta, konponketa txiki bat eta karteltxo bat bi azalpen ematen. Udal-langileak gai dira, sobran, hori egiteko.

Txatxarro latsarria mantentzeak onurak besterik ez lituzke ekarriko: Andra Mariri

galduta duen irudia eta historia itzuliko liz-kioke; Tosuko gazteak pozik geratuko lira-teke, udalak, horretan behintzat, kasurik egitearren; Getxoko udalak hirigintza zein kultura eraikin eta zerbitzu berriak emateaz gain, udalak zentzuz eta buru irekiz lan egi-ten duela azalduko lieke Tosukoei; amaie-ran guztiontzat iraganeko laginak egokitzen eta transmititzen dakiela adieraziko liguke udalak, oso merke gainera. ○

gu geu

Hitz jokoen zera hori...

Izena eta izana... Berben azala eta barrua... Hainbatetan zenbat buruhauste eta buruko min! Baina, oraingoan, “*Martirio*”-k esandakoak gure eginez: *baina, hain da ederra! Benetan, merezi du!* Berben loturak, elkartzeak, dibortzioak, banaketak, koloreak, intentsitateak, doinuak eta indarra, ahulezia, ozentasuna, xuxurla, jolasak eta joko serioak... Eta horien dantzari, gu pozarren!

Hala bada, irakurle, hil amaiera honetan, bihur dadila urria urre! Urre hori delarik zuetako baikotzaren eta gu guztion ametsak egia bihurtzea...

Hori lortzeko asmoz, lanean gabiltza!

UK-ko lan-taldea



LEIOA URRIAREN 9A

Euren omenez / *Leioa 1936-1945: Giza eskubideen zapalketa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan lana aurkeztu zuten Leioan urriaren 9an. Javi Buces Cabello historialariak osatu du, Aranzadi Zientzia Elkarteak kideak. Urte latz haietako gertakariak eta protagonisten lekukotzak bildu dituzte, leioaztarren laguntzagaz. Horregatik, errepresaliatu, lekuko eta haien senideei omenaldia egin zieten Kultur Leioan. Giza Eskubideen urraketari aurre egiteko printzipioak azpimarratu zituzten, egia, justizia eta erreparazioa helburu. Gaiari buruzko erakusketa eta bideoa ikus daitezke azaroaren 30era arte. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka*

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugu!

Domu Santu Eguna hurbil izanda, zelan agur zaitzaten gura zenuke?




 Algorta

Mikel Uriarte

> langabea

Nik nahi nuke nire gorputza erraus-
tea, eta gero familia eta gertukoak elkar-
tzea niretzako berezia den tokiren bate-
an, hala nola, Nafarroako Erratzu ondoan
dagoen Elorta mendian; bertan errau-
tsak botatzeko.



 Algorta

Aitor Manzano

> tabernaria

Niri gustatuko litzaidake erraustea
eta hautsak itsasora botatzea. Berdin
zait non. Ez naiz hain erromantikoa.



 Algorta

Aitor Pedrosa

> ikaslea

Ez dakit... Ni ez naiz pertsona erlijio-
soa, beraz, egun hori berdin zait. Hala
ere, nire amamarentzat, esate baterako,
oso sakratua da egun hori, eta hilerira
joaten da urtero.



 Berango

Alex Briegas

> ikaslea

Erraustea gustatuko litzaidake. On-
doren, agian musikagaz errautsak ez da-
kit nora botatzeari, leku apropos batera
edo. Oraindik ez daukat argi, ez dut
horretan pentsatzen.



 Berango

Alaitz Isusi

> tabernaria

Nire gorputza eta organo guztiak uni-
bertsitatera eroatea nahiko nuke, horre-
kaz ikas dezaten. Ondoren, nire ondo-
koek nire izenean edan dezatela nahiko
nuke, hilobiratzean eta guzti horretan
gastatuko luketena gorde eta nire izene-
an festa batean gastatzeko.



 Kuba

Elaine Moreno

> sukaldaria

Bakoitzak bere ohiturak ditu. Nire
kasuan, nire herrialdean hilobiratzea
gustatuko litzaidake: Kuban. Horregaz
batera, nire lagunak ospakizun txiki bat
egingo balute ere pozik joango nintzate-
ke.



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / GALEA (GETXO)

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > berdea



Galea, 2014ko urria

Testua: **Peru Vidal Gurrutxaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Iparragirre abila dela

Beldurrezkoa den irudiak
Galean du kokapena,
nola dagoen sasoi batean
militarren etxe zena:
Bedarrak paretetan
eta sasiak bertan,
aldaketa nabarmena.
Naturak beti berreskuratzen
du berea izan dena.

Zeru iluna inguru grisa
itzaltzen egunez egun,
duda dut ia etxe handiak
kolorea duen lagun.
Pintzelak ta paleta
hartu ditzagun eta
iluna argitzen jardun.
Zuri beltzean dagoen hori
koloreztatu dezagun.

Garai batean etxe barruan
zen militarren berdea,
berde iluna, berde tristea,
indar eta boterea.
Gaur da berde argia,
lurraren guraria
argi da zein den hobia,
etxeak berak nahiago baitu
berde honen kolorea

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

babes-eskaera > Galeako fortea



Fortea kultur ondare izendatzea eskatu dute

Galeko Fortea babesteko PP alderdiak aurkeztutako arauz besteko proposamena aho batez onartu dute Bizkaiko Batzar Nagusiek. Hala, Kultura eta Euskara batzordearen oneritziagaz, Eusko Jaurlaritzari eskatuko diote itsasargia eta fortea kultur ondare izendatzeko espedientea abia dezan. Gainera, eman beharreko babes hori “premiatz” egitea eskatu du PPK, multzo arkitektonikoa egoera larrian da-

goelako, “*guztiz utzita 70. hamarkadatik*”; batzarkide guztiak ados egon ziren eskutakoagaz. Bestalde, Arturo Aldecoak (PP), adierazi zuenez, bere iritziz: “*izendapena bateragarria litzateke Jaurlaritzaren egitea doan defentsa-elementu garaikideen ikerketagaz*”. Aipatutako elementu horien artean Kantaurira begira dagoen gotorlekua ere egongo litzateke. ○

Info+: www.jgggbizkaia.net

Bertsolaritza > Urdulizen finalaurretako bat

Bizkaiko Bertsolaritza Txapelketa hasi da daborduko; eta finalaurretako bat Urdulizen izango da Ander Deuna egunean (azaroak 30), arrastiko 17:30ean Iparralde kiroldegian. Ostera, hori baino lehenago, hainbat kanporaketa jokatu dituzte parte hartuko duten 37 bertsolari bizkaitarrek, artean uribe kostarrek: bigarren kanporaketan (Gautegiz-Arteaga, urriak 19) jardungo dute Inazio Vidal, Itxaso

Paia eta Josu Landetak; laugarrenean (Mallabia, azaroak 2) Arrate Illarok eta Peru Vidalek; bosgarrenean (Zeanuri, azaroak 9) Beñat Vidalek eta Imanol Uriak. Horrez gainera, finalurrekoetan zain izango dituzte: lehenengoan (Etxebarría, azaroak 22) Fredi Paia, eta hirugarrenean (Amorebieta-Etxano, abenduak 7) Jone Uria. Finala Bilbao Arenan (Miribilla) izango da abenduaren 20an, 17:30ean. ○



Info+: bertsozale.eus/eu/bizkaia/bizkaikotxapelketa



Info+: www.tokikom.eus

akordioa > tokikom eta eitb

Euskarazko tokiko hedabideak batzen dituen Tokikom elkarteak (UKberri.net eta UK kide ditu) eta EITBk elkarlanerako akordioa sinatu dute. Hasieran agendak elkartrukatuko dituzte, eta aurrerantzean materiala elkarbanatzeko aukerez berba egingo dute. Tokikom-eko presidentek Urko Aristik adierazi duenez, “*euskal komunikabideen etxea bi solairutakoa izanik, ezinbestekoa da igogailuak eraikitzea; sina-*

tutakoa horietako bat da. Handiek, kasurako EITBk, zail du bazter guztietara iristea, eta horretan tokikook ezinbesteko laguntza eskaini ahal diogu, bestetik, txikiok handiaren babesa behar dugu egonkorrago izan nahi badugu”. Euskadi Irratiagaz daborduko badago halako akordio bat: astelehenero Mezularia saioan Tokikom tertulia dago. Abian da, Azpimarra-n (ETB1) Tokikom-eko kideen partehartzea ere bai. ○

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa


www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Javier Quislant Garcia > konpositorea eta musikaria

“Gaur egun, nik interpretatu gura dudan musika konposatzen dut”

Javier Quislant Garcia getxoztar konpositorearen obra bat estreinatuko du Bilbao Orkestra Sinfonikoak urriaren 31n. Bartzelonan ikasi zuen konposizioa eta arlo horren gaineko masterra egiten dabil Austrian, Beat Furrer konposito-reagaz; aurten amaituko du.

—Atzerrira joan zara, zer dela-eta?
—Atzerrira etortzea beste errealitate bat bizitzeko aukera zen, formatuz ikasteaz batera, Europa erdialdeko herri batean.
—Zure kabuz hasi zinen musikan, zela-koa izan da garapena?
—Etxean geneukan musika-tresnetako bategaz hasi nintzen, pianoagaz, belarriz; partiturak begiratu eta entzuten nituen obrak imitatzen saiatzen nintzen. Horrela, hainbat gauza ikasi nuen, adibidez, hainbat konpositorek zelan erabiltzen duten armonia, erritmoa, forma, e.a. Dibertigarria zen horrela ikastea, jotzen, eta denboraren joanaz ohartu naiz izan nezakeen erremintarik onenetakoa izan zela, dibertigarriena izateaz gainera. Hasieran, musika klasikoa interpretatzen nuen, aldi berean rock-talde batean gitarra elektrikoa jotzen nuela ahaztu gabe. Baina konposatzeko beste modu batzuk ezagutu guran, bidea egiten eta interesak zabaltzen hasi nintzen. Egia esan, inoiz ez diot utzi modu horretan ikasteari. Bilboko kontserbatorioan ikasi eta klase partikularrak jaso ostean, Bartzelonara joan nintzen Konposizioako Goi Gradua egitera: lau urte egon nintzen eta gauza barri asko ikasi nuen. Irakasleak elkarrengandik oso desberdinak izan direnez musika behatzeko modu desberdinak ezagutu ditut. Gainera, konposaketa interpretazioagaz lagundu dut beti,



Gaur egun Austrian ikasten dabil Quislant

eta arlo profesionala garatuz joan naiz; enkarguak jaso ditut eta hainbat ekintza-tan parte hartu dut: *workshop*, e.a.
—BOSegaz obra bat estreinatuko duzu lehenengoz?
—Bai, Musika Garaikidearen Zikloaren baitan izango da, Musikagileak elkarteak antolatuta. Urriaren 31ko kontzertuan jo-

zehatzean prestatuta eta idatzita dagoela. Halere, obraren osagai nagusia ez da testua; izan ere, ez da oinarritzen zehazki poemaren argumentuaren harian; ahotsaren trataeraren gainean interesa ere badago, orkestra-tinbreen bitartez. Oso pozik nago kontzertuagaz, gainera, konpositore legez Bilboko lehena izango da. Abendua-

“Urriaren 31n Eresia pieza estreinatuko du Bilbao Orkestra Sinfonikoak eta abenduan beste bat, Breton laukoteak”

ko dute nire pieza: *Eresia*. Esteban de Garibay poetaren euskarazko testu bat da *Eresia*, XV. mendekoa. Edukia dramatiko da, pertsonaia desberdinakaz: irakurri eta berehala antzematen da testuari darion bortizkeria-kolpea. Interesgarriena zera da: ez duela erabiltzen lengoia espliziturik; estrofa bakoitzean “kolorea” era oso

ren 16an beste bat egingo dut: Breton laukoteak *erinnerungs.vermögen* nire lana interpretatuko du.
—Aurrerantzean jotzen segituko duzu?
—Konposatzen segituko dut, hori dut eta ogibide. Baina musika jotzen ere saiatzen naiz: gaur egun, nik interpretatu gura dudan musika konposatzen dut. ○



“Itzartu arnasgunea izan zen niretzat, etxetik urteten lagundu zidan”

Mertxe Perez Santos > Itzartu elkarteko gatza eta piperra

Erretiroa atsedean hartzeko sasoia? Aspertzeko garaia? Oroitzapenetatik bizitzeko unea? Bai zera! Mertxe Perez Santos sopoloztarraren hiztegian behintzat, ez ditugu berba horiek topatuko: “*Niretzat etxean telebistaren aurrean ezer egin barik egotea bekatua da. Zer edo zer egin behar dut beti!*”. Mertxek 25 urte darotza Sopelan bizitzen: “*jaiotzez Palentziakoa naiz, baina bihotzez Euskadikoa*”, eta gaur egun Itzartu emakumeen elkartearen piper eta gatza da: “*Paperetan diruzaina naiz, baina...*”. Umiltasunez ez du esango, baina Itzartun denetarik egiten du; jarduerak antolatu, tailerrak, ikastaroak, zinema... 17 urte daroatza elkartearen jo eta su: “*Etxean sartuta zeuden emakumei etxetik urteteko aukera ematea izan zen gure lehenengo helburua*”. Berak ere eskertu zuen militantzia: “*Senarra galdu nuenean Itzartu arnasgunea izan zen niretzat; etxetik urteten lagundu zidan*”. Bestalde, euskara ere badu pasio. 50 urtegaraz erabaki zuen euskara ikasten hastea: “*Hemen aukera oso gutxi daukat euskara praktikatzeko. Mintzapraktika gehiago landu behar dut, batzuetan lotsa ematen didalako...*”. Eta bere azken ekarpena, SHK Sopelako Hondakinen Kontseiluan topatu dugu. “*Gai hau oso interesgarria da: beharrezkoa da sortzen ditugun hondakinekiko kontzientziarazioa bultzatzea*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Wanted: zaharrak eta barriak

Aurreko edizioetako **proiektu bi** garatzen **ari dira** asteotan: **Book trailer** lehiaketa eta **Paisaia/Red: Getxo** erakusketa; **gainera**, **2014ko edizioan** parte hartzeko **epea zabaldu dute**

Wanted lehiaketa notizia daukagu egunotan, hainbat arrazoiengatik. Batetik, aurreko ekitaldietako proiektu bi abiatu dira: **Book trailer** lehiaketa eta **Paisaia/Red: Getxo** erakusketa. Bestetik, 2014ko **Wanted** abiatu da. **Gazteek** sustatutako proiektuetarako **ideia-lehiaketa da**, aurrera ateratzeko **arazoak** dituzten proiektuei **laguntzeko**. **Aurten**, **gainera**, **udalak 8.000 euro** gehiago emongo ditu sariatzen.

Book trailer delakoak liburu bat ezagutarazteko egiten diren bideo laburrak dira, filmetako trailerren antzeko teknikak erabiltzen dira, minutu inguruko iraupena izaten dute eta internetez hedatzen dira. **Book trailerren** lehiaketa abiatu du Kalabazan kultur ekimeneko lagunek: Irati Astobietza, Jone Ibarretxe eta Garazi Basterretxeak (**Wanted** 2013ko irabazleetako batzuk). Helburua da “**Getxoko gazteen artean irakurzaletasuna sustatzea**” beraz, 12-18 urte bitarteko gazteek parte har dezakete, gehienez hiru lagunetako taldeetan.

Eginbeharra argia da: Aukeran emondako liburuetako bat irakurri eta horren trailerra egin behar dute. Lanak abenduaren 22a baino lehen helarazi behar zaizkie: *Youtube* gunean eskegi eta lotura mail-ez bidali (*sardadilakalabazan@gmail.com*). Bozketa internetez egingo da eta urtarillaren 11n emongo dituzte jakitera irabazlearen izenak. Sariak ondokoak izango dira: abentura-kamera bana, piraguan ibilaldia eta eskola-materiala erosteko 50 euro. Oi-



Paisaia/Red: Getxo erakusketako argazki bat

narriak ikus ditzakezu Kalabazan taldearen webgunean.

Bestalde, *Paisaia/Red: Getxo* erakusketatik ikus daiteke Algortako Torrene aretoan urriaren 31ra arte. Karla Tobarrek eta Cristian Villavicenciok sortu dute eta paitan

“Wanted-erako ideiak aurkez daitezke urriaren 31ra arte eta Book trailerrak abenduaren 22ra arte”

saiaren kontzeptua aztertzen du “*lengoaia artistiko anitzen ikuspegitik*”. Horretarako, ikusentzunezko tresnak, internet eta argazkiak erabili dituzte, besteak beste, “*inguratzen gaituen espazioaren kontzeptua berririo definitzeko*”. Erakusketa bisita daiten: eguaztenetik barikura, 11:00-13:00

eta 17:00-20:00 bitartean; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-21:00 artean; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

Aurtengo edizioa martxan

Esan bezala, *Wanted* 2014ko edizioa abiatu da eta izena emon dezakete proiekturen bat daukaten 18 eta 30 urte bitarteko gazteek, urriaren 31ra arte. Proiektuok garatzeko baliabideak eskaintzeaz gainera, diruz laguntzen dituzte: aurten 18.000 euro emongo dituzte, iaz baino 8.000 gehiago (nahiz eta proiektu bakoitzak ezin jaso 10.000 baino gehiago). Oinarriak: 944 660 353, *www.getxo.net/gazteria*, Herriarren Arretarako Bulegoak, Getxolan eta Gazte Bulegoa. ○

Info+: www.kalabazan.com eta www.getxo.net

Errekaganeko pabilioiak

erosiko ditu udalak, “*erabilera publikoa*” emoteko



Gobela ibaia, Errekaganen, pabilioiak ezkerrean

Iraileko Osoko Bilkuran 1,5 milioi euroko kreditua onartu zuen Getxoko Udalak Errekaganeko pabilioietako lursaila erosteko, Romon; horren alde egin zuten alderdi danek, PPK izan ezik.

Adostu zuten, lursailaren erabilera publikoa izango da, “*ez baitu bakarrik erabiliko gaztetxea kudeatzen zuen elkarteak*”. Gogoratzea, bere garaian, Gobernu Taldeak konpromisoa hartu zuela Itzualtzeta Gaztetxea Errekaganeko pabilioietara barriro ekartzeko “*URA agentziaren lanak amaitutakoan, eta beti ere Gobernu Taldeak eta Gaztetxea kudeatzen duen elkarteak sinatutako hitzarmena osorik betetzen baldin bada*”. Udalak jakinarazi duenez, alde biek landu dute pabilioien erabilaren gainera hitzarmen-zirriborro bat, nahiko aurreratuta daukatena.

Horrela, EAJren arabera, “*gaztetxearena soilik ez den erabilera (beste elkarte batzuen erabilerekin bateratuko dute), zein udalarekin eta auzokoekin bizikidetzaz esparrua zehaztuko ditu*”. Bilduren iritziz, ona da lursaila erostea udal-erabilera emoteko, “*gaztetxeak bere proiektua gauza dezan, Romon oso errotuta dagoena eta beste kolektibo batzuen jarduerentzako lekua utzi duena: emakumeak, dantza, auzoko jai-batzordea, e.a.*”.

PSE-EEren iritziz, “*garrantzitsuen da inguruko gainontzeko lursailen jabe egiten garel*”. Beraz, “*ez dugu talde jakin batenetzako lurra erosten. Gaur kolektibo batzuek erabil ditzakete eta bihar beste batzuek*”. PPK kontra bozkatu zuen: “*Getxon askoz gazte eta kultur elkarte gehiago daude*”. ○

Info+: www.getxo.net

DENDARI, MERKATARIEI LAGUNTZEKO EKIMENA

Herriko “*merkataritzari laguntzeko*” programa barria abiatu du Getxoko Udalak: Dendari. Helburua da saltokien lehiakortasuna, kudeaketa eta merkatarien enpresa-gaitasuna hobetzea. Horretarako, ikaskuntza praktikorako saiok egingo dira, “*personalizatuak eta etengabeko hobekuntzan lagunduko duten adituen laguntzagaz*”. Lehen ekintza izango da Gabonetako kanpaina prestatzea. Gehiago jakin gura baduzu: 944 660 140 edo *getxolan@getxo.net*.

Info+: www.getxo.net

TERRAZEN ORDENANTZA, BERRIKUSPENARI BURUZ

Terrazak eta barrak kalean ipintzeko ordenantzaren berrikuspenean “*ostalarien eta interesa duten auzotarren hitza entzuteko*” eskatu du EHBilduk. Koalizioak azaldu duenez, Gobernu Taldeak Hirigintza eta Lehendakaritza komisioetan jakinarazi zuen “*Espazioetan Terrazak eta Barrak jartzea arautzen duen udal-ordenantza*” berrikuspeteko asmoa”, eta lan horretan, “*beharrezkoa*” deritzo ostalarien eta herritarren parte-harteari. Gobernu Taldeak baina, “*bilerak egiteko asmoa agertu ez*” duenez, EHBilduk ostalariakaz eta bizilagunakaz partekatuko du bere zirriborroa, horien “*ekarpenak jaso eta helarazi ahal izateko*”. Koalizioagaz harremanetan ipintzeko: 944 660 280 edo *bildugetxo@gmail.com*.

IRAKATSI JAN TXOKOKO SUKALDEA, ONENA

Romotor txoko bi herriko onenak izan dira *El secreto de sus txokos* lehiaketaren bosgarren edizioan. *Irakatsi Jan* izeneko txokoak irabazi du lehenengo saria, eta *Hamabostekoak* txokoak bigarrena; hirugarren lotu da Algortako *Punta Galea* txokoa. Oraingoan bakailaoa prestatu behar izan dute, bizkaitar erara. Irabazleek jaso zituzten: ohiko *Aixerrota* oroigarria, bakailaoa erosteko bale bat, arrain hori prestatzeko errezeta liburua eta Leioako Ostalaritza Eskolaren oroigarria.

OKINDEGIA

GO

TXOKOA

IZOZKI-DENDA

San Nikolas Enparantza (Andikoetxeko kantoian) ALGORTA

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

Indabadaren antolatzaileak > 15 urte lapikoa sutan

“Indabada ekimen herrikoia da, antolatzera jende barria hurreratzea eskertuko genuke”



Indabada antolatzen duten lagunetako batzuk

Azaroaren 1ean egingo dute Indabada Algortan eta aurten ospakizun berezia izango da, 15 urte beteko ditu-eta. San Nikolas plazan izango da eta 400 lagunentzako jana prestatuko dute bertoko baserrietako produktuakaz. Goizean goiz ipiniko dute lapikoa sutan eta laster hasiko da mugimendua: txotx, giza-proban parte hartzeko aukera eta giro parebakoa izango dira. Bazkalostean enkantea egingo dute eta arrastian poteoa, fanfarreak lagunduta. Aurtengo nobedadea: plater birziklagarria izango da, hurrengo urtean berrerabili ahal izateko.

—Algortako kuadrilla batek hasi zuen Indabada, zelan izan zen?
—Bai, kuadrilla batek antolatu zuen lehenengoz, 20-30 bat pertsona elkartu ziren. Asmoa zen bazkari herrikoia egitea. Portu Zaharreko txosnan lortutako dirua herriari bueltatzeko modu bat zen, jendeak egindako inbertsioa edo laguntza herriari bueltatzearren. Aurrerago, Gazte Asanbladak bere gain hartu zuen: urtetan antolatu zuten berak edo gaztetxeak. Planteamendua izan zen herri-mugimenduari pasatzea, ikusten zelako mundu

guztiarena zela Indabada.
—Hasierako 20-30 lagun haietatik asko eta asko hazi da Indabada.
—Bai, jende gehien elkartu ginen zazpi-garren edo zortzigarren urtean: 500 lagun baino gehiago. Aurten 400 pertsonaren-tzako egingo ditugu indabak.
—Algortakoak, baita ingurukoak ere?
—Bai, hori da. Normalean, herri-mugimenduan ez dabilen jendea ere hurbiltzen delako. Egun osoko ekimena da, jai-giroan. Hau da: planteamendua herrikoia da.
—Gainera, bertoko ekoizleei erosten

dizkiezue produktuak, ezta?
—Bai, bazkaritarako erabiltzen den genero guztia bertoko baserritarrei erosten diegu, kalitatea mantentzen saiatzen gara, eta bakarrik erosten dugu baserritik kanpora ogia eta postrea. Patxarana ere bertoko

«Betiko fanfarrea bat ekarriko dugu eta gauean herrian lotuko gara»

ko ekoizleei hartzen diegu, etxean egindakoa da.
—Aurten 15. Indabada duzue, zer edo zer berezirik prestatu duzue?
—Urtero moduan, goizean txotx egongo da. Aurten graffiti-erakustaldia izango da eta giza-probetan parte hartzeko aukera egongo da, harri bat eskatu diegu-eta herri-kiroletakoei. Bazkalostean enkantea eta bingoa egingo ditugu, eta arrastian poteoa herrian. Oraingoan ez da egongo elektrotunarik, betiko fanfarrea bat ekarriko dugu; eta gauean herrian lotuko gara, ez dugu kontzerturik antolatuko gatzetxean. Berezitasun bat izango da, plater birziklagarriak erabiliko ditugula lehenengoz; horrela, datozen urteetan berrerabiltzeko gordeko ditugu.
—Urte asko eta aurrera segitzeko asmoz?
—Bai, baina gauza herrikoia izanda, herritarrek hartu beharko lukete beren gain; oraingook urteak daroatzagu antolaketan eta batzuk erretzen hasita gaude, beraz, jendea anima dadila! Lan-taldean 6-7 lagun elkartzen gara, nahiz eta kuadrilla batzuek lagundu, eta jende barria hurreratzea eskertuko genuke. Egunean bertan 20-25 bat pertsonak lan egiten dugu: sukaldatu, muntatu eta zerbitzatu behar da, beraz, txandak egingo ditugu. Helburua da ondo pasatzea eta egun polita igarotzea. ○

Saskibaloia indartsu dator Getxo Saskibaloi Taldeak 2014-15 denboraldiko taldeak aurkeztu ditu



Emakumeen lehenengo mailako taldeko jokalaririk

Fadura kiroldegian aurkeztu zituen denboraldi barrirako taldeak Getxo Saskibaloi Taldeak, urriaren 10ean: 19 talde dira, 200 jokalaririk inguru, eta parte hartuko dute “Bizkaiko, Euskadiko eta Estatuko zenbait kategoriatan”.
Ekitaldia aurkeztu zuen Iratxe Bilbao Getxo Saskibaloi Taldeko presidentea. Bertan, isiltasuna gorde zuten minutu batez, “aurten hil diren klubeko pertsona ahaztezin biren gomutan”. Horiek dira: Javier Durango, klubeko entrenatzaile izandakoa eta “pertsona konprometitua saskibaloiaz toki zein herrialde mailan”; eta Marco Mijhailovic, auto istripu batean

hildako jokalaririk gaztea. Gonbidatuen artean zeuden: Arturo Aguado Euskadiko Saskibaloi Federazioko presidentea, German Monge Bizkaiko Saskibaloi Federazioko presidentea, Imanol Landa Getxo alkatea eta Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahal-dun nagusia.
Bestalde, 2014-15 denboraldi honetan, emakumeen lehenengo mailako taldea Burdinola Getxo izenagaz lehiatuko dela jakinarazi du klubak. Izan ere, Algortako Burdinola Tabernak babesten du taldea eta, horregatik, argazki ofiziala egin zuten bertan urri hasieran. ○
Info+: www.getxosaski.com

KIROLAREN JAIA FAMILIENTZAT

Egizu Getxo Euskaldun taldeak kirolaren jaia antolatu du familientzat urriaren 26rako. Badmintona, arku-tiroa, zoomba eta herrikirolak familian praktikatzeko aukera ezin hobeia izango dela ziurtatu du Egizuk. Goizean izango da, 11:00etatik 14:00etara, Fadura kiroldegian. Ume txikienentzako haurtzaindegi-zerbitzua eskainiko du doan, parte hartzeko mugarik egon ez dadin. Izena emoteko ondoko telefonora deitu behar duzu: 685 732 963. Bestalde, gogoratzea urriaren 22an Hazibideak hitzaldi sortaren baitan berba egingo duela Joxe Amiak, etxerako lanei buruz: Zabala ikastetxean, 17:30ean.

Info+: www.egizu.org

GARI MUSIKARIAGAZ BERBALDIA AZAROAN

Udagoieneko Ostera kultur zirkuituaren hitzorduetako bat Getxon izango da, azaroaren 5ean: Gari musikariagaz solasaldia egingo da Algortako kultur etxean. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatzen du Udagoieneko ostera. Zirkuitua hainbat emanaldik osatzen dute (musika, antzerkia, e.a.), eta astero bat egiten da Bizkaiko herri batean.

Info+: www.getxo.net

BIZILAGUNAK, EDIZIO BARRIA MARTXAN

Bizilagunak-Aldameneko familia egitasmoaren bigarren edizioa prestatzen ari dira Getxoko Udala, Egizu Getxo Euskaldun elkarte eta Getxoko Etorrinak Plataforma. Bertoko eta atzeritik etorritako familiak elkartuko dira, barriro ere, elkarrekin bazkaltzeko, azaroaren 23an. Zehazki, bazkari bakoitzean bertoko eta etorritako familia banak parte hartuko dute, dinamizatzaile batek lagunduta. Horrela, beren errealitatez eta esperientziez mintzatzeko aukera izango dute, etxekoan arteko gune informalean. Iaz 130 pertsonen parte hartu zuten Getxon, 16 bazkaritan.

Izena emoteko: www.getxo.net/bizilagunak

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Ana Lopez Asensio > Kultur Leioako zuzendaria

“Kultur Leioara etortzea esperientzia biribila izatea lortu behar dugu, ez kultur kontsumo hutsa”

Leioako kultur etxe nagusiak 10 urte bete ditu. Irailean ospatu zuen, dantza bertikal ikuskizun batez, eta udagoienera ohiko egitarauagaz jarraituko dute. Ana Lopez Asensio bertako zuzendariarengana jo dugu urteotako balorazioa eskatzeko.

—Ekitaldia egin zenuten irailean?
—Ekitaldia egin genuen gogorazteko hemen gaudela. Ospatzeko era xumea izan da, udari agur esan eta egitarau barriari ekiteko. Hasieratik erreferente bihurtu nahi genuen eta zerbitzu guztiak elkartu; eta lortu dugu. Jende asko pasatzen da hemendik, ildo nagusia da egunero ekintzak egitea. Apustu indartsua daukagu arte eszenikoekin eta musikarekin, saiatzen gara proposamen bereziak ekartzen eta baldintza ahalik eta onenetan lan egiten, bestela oso zaila litzateke horrelako proposamenak ekartzea. Esfortzu handiena da lan-taldeetan egotea, jaialdietara bidaiatzea nobedadeak ikusteko, aniztasuna eta kalitatea zaintzeko. Programazioa hobetzen saiatzen gara beti, Umore Azoka da gure nazioarteko programa, atzerrian ezagutzen dute Leioa Umore Azokagatik. —Hasierako helburua bete duzue?
—Lortu dugu erreferente izatea, erronka



Kultur Leioako egitarauaren barri daukagu www.kulturleioa.com gunean

da egunero aretoa betetzea. Dinamika inguruko antzokien antzekoa da. Lortu behar dugu jendea etortzea esperientzia bat izateko, ez izatea kultur kontsumo hutsa. Horregatik antolatzen ditugu ekintza paraleloak esperientzia biribila izateko: so-lasaldiak aktoreakaz, e.a.
—Batzuk kexu dira eta iritzi diote kultur eskaintza hemen zentralizatzen dela, auzoetan eskaintza gitxi dagoela.
—Beno, eskaintza eszenikoa ezinezkoa da

auzoetan izatea, baldintza egokiak ukateko antzoki bat behar duelako. Talde amateurkin lan egiten dugunean ere baldintza profesionalekin egiten dugu, eta hori ezin da gauzatu auzoetako aretoetan. Auzoetan ekintza hurbilak daukagu: tailer-rrak, asteburuetan familia-ekintzak, e.a. Baina arte eszenikoek eta musikak hemen izan behar dute. Bilbon ere gauza bera gertatzen da: Arriaga antzokia dago eta auzoetan egiten da eguneroko lana. ○

Berbaldun abian da

Euskararen **erabilera sustatzeko** egitasmoa aurkeztu **dute** udalak **eta** udal-euskaltegiak



Egitasmoaren barri emoten duen iragarkia

Berbaldun: Euskaraz egin dezagun egitasmoa aurkeztu dute Leioako Udalak eta Mastitxu Udal Euskaltegiak, “*Leioan euskararen erabilera suspertzeko*”. Azaldu dutenez, azken urteotan “*euskararen eza-gutzan aurrerapauso handiak eman dira*”, baina erabilera “*ez du ekarri igoera nabarmenik*”. Horregatik eta “*lan hori guztia alferrik gal ez dadin*” antolatu dute Berbaldun: euskaldunak eta euskara ikasleak animatu dituzte parte hartzera.
Horretarako, “*berba-taldeak*” osatuko dituzte, “*pertsona euskaldunak eta euskalduntze prozesuan daudenak*” elkartuz: “*Askotan, ez daukate euskara erabiltzeko aukera handirik, horrek euskara erabiltzeko ohitura falta dakarkie, eta euskaraz egi-*

teko beldurra, lotsa eta erraztasun eza”. Egitasmoaren bitartez, euskaldunak euskaltegiaren eta kalearen arteko “*jauzia*” egiten lagun diezaieketela uste dute.
Astean gutxienez ordubetez elkartuko dira taldeak, “*interes komunak*” dauzkaten lagunek osatuta: “*gurasoak, auzo bereko lagunak, zaletasun bera daukatenak, e.a.*”. Egitasmoaren dinamizatzaileak ere parte hartuko du. Bestalde, informazio-totem batzuk ipini dituzte herrian: bertan dauden QR kodeen bitartez herritarrek grabatutako bideoak ikus daitezke, eta horietan azpimarratzen dira “*euskaraz egiteak dauzkan onurak*”. ○
Izena emoteko: 944 640 002 eta berbaldun.leioa@gmail.com

IPUINAK KONTATZEN IKASI GURA DUZU?
Hitzaren zuhaitza tailerrean izena emoteko azken egunak dituzu. Ipuinak kontatzen ikasteko tailerra da eta “*herritar boluntarioen sarea*” osatu gura dute udalak eta Geuz elkarteak “*haurrei, ipuinen bidez, bake kulturaren baloreak transmititzeko eta eurekin lantzeko*”. Mendibile jauregian izango da eta talde bi egingo dituzte: hasierakoa (urriaren 25ean eta azaroaren 8an) eta aurreratua (azaroan). Informazioa eta izen-emotea: www.ipuinkontaketak.tk, 633 016 107 eta saioa@geuz.es.
Info+: www.leioa.net

JOSHUA EDELMANEN KONTZERTUA ARTATZAN
Urriaren 25ean eta 26an Artatza jauregian kontzertu berezia izango da *Etxeko Musikak* programaren baitan, 20:00etan: Joshua Edelman & Manhattan Bilbao Jazz Zubia. Piano-jotzailea, konpositorea, produktorea eta pedagogoa, Manhattanen (New York, AEB) jaioa, gaur egungo jazz-piano jotzaile original eta polifazetikoenetakoa da. *Etxeko Musikak* programaren barruan ere bisita gidatuak egin dira eta horietan parte hartu duten lagunek daukate lehentasuna kontzertuetara sartzeko. Libre dauden lekuetarako sarrerak kontzertuen aurretik eskura daitezke, 19:00etatik aurrera.
Info+: joshuaedelman.com/es

AMAREN IRUDIA ZIKLOA PERSEO ZINEFORUMEN
Oraindino pare bat film ikus daitezke *Amaren irudia* zikloaren barruan, Perseo Zineforum programan. Lehen a *Llenar el vacío* (Rama Burshteinek zuzendua) eta urriaren 21ean emongo dute; bigarrena, barriz, *La segunda mujer* (Umut Dag), hilaren 28an proiektatuko dute. Ohi legez, solasaldia egingo dute emanaldien ostean. Gogoratzea Perseo Zineforum Kultur Leioako Auditorium aretoan egiten dela, martitzenero eta 20:00etan; sarrera bakoitzak 2,5 euro balio du.
Info+: cineforumleioa.blogspot.com

OIARBIDE
DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaiak, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoliarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Alberto Mielgo Hernandez > saxofoi-irakaslea

“Saxofoia kalera atarako dugu, jendeak ezagut dezan saxofoiagaz jotzen den musika”

Saxofoi-topaketak egingo dituzte Erandion azaroaren 4tik 8ra. Hamaika Sax saxofoi elkarteak antolatu ohi ditu, urte bakoitzean herri batean. Alberto Mielgo Hernandez dugu Erandioko musika-eskolako saxofoi-irakasle.

—Aurten Erandion izango dira topaketak, nondik dator horretarako ideia?
—Hamaika Sax elkartekook antolatzen ditugu eta ni Erandion irakasle nabilenez, aurten hemen egingo ditugu; Larrabetzun ere irakasten dut. Aipatu elkarte Musiken formatutako irakasle batzuok sortu genuen, saxofoia bultzatzeko, ikasleen artean ekintzak egiteko, eta sustatzeko ikaslea ez dela bakarrik etxean praktikatzeari eta klasean irakasleagaz jotzea; motibatzeko modu bat da. Normalean, maiatzaren izaten dira, baina azaroaren 6an 200 urte beteko dira Adolphe Sax saxofoiaren sortzailea jaio zenetik...
—Nortzuk parte hartuko duzue?
—Ekitaldi nagusia azaroaren 8an izango da, topaketa. Elkartuko gara partaide garen irakasleon eskolak eta inguru honetako eskola gonbidatuak: Baiona, Uharte, Elgoibar, Donostia, Bilbo, Erandio eta Larrabetzuko kontserbatorioak eta musika-eskolak. Ikasleek eta irakasleok batera joango dugu, 80 lagunek batera. Lehenengo



Erandioko musika eskolako saxofoi irakasle da Mielgo

entsegu orokorra egingo dugu Altxagan eta gero kalejiran urtengo gara auzora. Arrastian, barriz, musika-eskola bakoitzak bere emanaldia egingo du kontzertu orokor batean. Gainera, goizean, entseguaren eta kalejiraren artean, bideo bat ipiniko dugu Adolphe Saxen bizitzaren inguruan.
—Zer beste ekitaldi prestatu duzue?
—Azaroaren 4an eta 6an nire ikasleen kontzertuak izango dira: 4an Astrabuduko musika-eskolan eta 6an Larrabetzukoan. Hilaren 5ean, barriz, nik emongo dut

kontzertua Astrabuduan, beste lagun bidez batera: Iker Martin (saxofonista) eta Jaione de Perdigo (pianista).
—Beraz, ikasleei klasetik urteteko aukera emotea da asmoa?
—Bai. Azken finean, irakasleen elkarte bat garenez, gure ikasleen motibazio puntu bat bilatzeko modu bat izan daiteke, saxofoia sustatzeko modu bat. Gainera, dagokion herrian, saxofoia kalera atara gura dugu, jendeak ezagut dezan saxofoiagaz jotzen den musika. ○

Idatzi haikua eta irabazi!

Haiku lehiaketa abiatu du Euskara Zerbitzuak: poemak bidal daitezke azaroaren 27ra arte



Ibai Hernandez Morras, iazko irabazlea 18 urtetik beherako kategorian

Euskarazko haiku-lehiaketa abiatu du Erandioko Euskara Zerbitzuak, laugarrenez, eta azaroaren 27ra arte jasoko dituzte parte-hartzaileen testuak.
Haikua poema txikia da, japoniarra. Hiru lerro dauzka: lehenengoa bost silabakoa, bigarrena zazpikoa eta, hirugarrena, barriro ere bostekoa. Ez du titulurik, ez errimarik, eta askotan puntuazio markarik ere ez. Berbak dira protagonista, bestelako apaindura barik.
Urtero legez, oraingoan ere kategoria bi daude lehiaketan: bata 18 urtetik beherakoentzat, bestea 18tik gorakoentzat. Dagokien mailan, parte-hartzaileek hiru

haiku aurkez ditzakete gehienez. Beraz, poemakaz batera, izen-abizenak eta zein mailatan parte hartu gura duten jakinarazi behar dute. Euskara Zerbitzuari helarazi behar zaizkio (Irailaren 23a plaza), bertaratuz edo posta elektronikoko bitartez: euskara@erandioko-udala.org. Irabazleek irakurgailu elektronikoko bana jasoko dute.
Iazko haiku onenak ondokoak izan ziren. Batetik, Aitor Fernandez de Martikorena Rodriguezena: “Izarrak, goian; zu, irriño, alboan... Non pausa soa?”. Bestetik, Ibai Hernandez Morrasena: “Itasoa, plaf, olatuek jo dute, harkaitz gaixoa”. ○
Info+: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

ERANDIOGOIKOA EZAGUTZEKO BISITA

Ondareari Buruzko Jardunaldien barruan bisita gidatuak antolatu dituzte Erandion, eta oraindino garaiz zaude Erandiogoikora egingo den horretan parte hartzeko. Urriaren 25ean izango da, 11:30ean. Udaletxetik abiatuko da eta Erandiogoikoko Andra Mari elizan amaitu. Derrigorrez emon behar da izena, leku-kopurua mugatua da-eta. Horretarako, Kultur sailagaz harremanetan ipini: 944 890 140 edo 946 025 891.

Info+: www.erandio.net

PUTXERA-LEHIAKETA URRIAREN 25EAN

Astrabuduko radio Club Takolos taldeak antolatu du Nazioarteko Putxera-Lehiaketa, urriaren 25erako. Sari orokorreaz gainera, herriko sariak ere emongo dituzte. Izena emotean 5 euro ordaindu behar da, baina ardo botila eta ogia oparitutako dute. Aurkezpenerako beharrezko osagaiak dira: txorizoa, odolostea, urdaia, saiheskia eta indabak (gitxienez 700 gramo, gorriak edo garbantzu kolorekoak). Baina adi ibili: txapelketa eremuan osorik prestatzen ez diren putxerak txapelketatik kanpo geratuko dira-eta, automatikoki. Epaimahaia osatuko dute Bilboko Makila kofradiako kideek.

Info+: www.erandio.net

KUKUBILTIXOREN IPUIN-KONTAKETAK URRIAN

Txikientzako euskarazko ipuin-kontaketak jarraituko dute ikasturte honetan ere Erandioko liburutegiek, auzoz auzo. Urrian, berbarako, Kukubiltxo taldeko lagunak hurbildu dira. Altxagan egon dira daborduko, baina saio bi daude oraindino: hilaren 24an Erandiogoikoko gizarte etxean eta urriaren 29an Astrabuduko liburutegian. Biak hasiko dira 18:00etan eta doakoak izango dira. Gogoratzeari 4 eta 8 urte bitarteko umeei zuzenduta daudela ipuin-kontaketak.

Info+: www.erandio.net

Inprimatu zure posterra airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitez zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BEZ barne

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

LITERATUR SOLASALDIAK
KURTZIO KULTUR ETXEAN

Hilean behin, liburu jakin bat aurkeztu eta horren inguruko solasaldiak egingo dituzte Kurtzio kultur etxean. Urriaren 16an Danele Sarriugarteren “Erraiak” liburuaz aritu ziren. Azaroaren 11n, berriz, Iban Zaldtuaren “Inon ez, inoiz ez” lana aztertuko dute; eta abenduaren 18an Bernardo Atxagaren “Nevadako Egunak” liburuaz arituko dira. Berbaldi guztiak arrastiko 19:00etan hasiko dira.

BADATOR V. PUTXERA
EGUNA, SARI BEREZIAGAZ

Beste urte batez, Pepetxinen omenez antolatzen den Putxera Eguna hartuko du Sopelak azaroaren 1ean. Urtez urte jaialdi honek gero eta indar gehiago hartzen hasi da, jendearen harrera onaren seinale. Aurten gainera, Marmiton Kolektiboak adierazi duenez, “azaroaren 1ean Sopela putxera erraldoi batean bihurtzea gura dugu”. Izen emateak goizeko 9etatik 11ak arte izango dira, debalde, Udaletxe plazan; putxerak, berriz, 12:00 eta 13:00 artean aurkeztu beharko dira. Urtero legez, hainbat sari banatuko dituzte. Aurten gainera, sari berezia emango diote azken bost urteetako sukaldari onenarentzat.

AURREKONTU
PARTEHARTZAILEAK

Laugarren urtez, Sopelako Udalak aurrekontuen prozesu partehartzailea antolatu du, herriko lau auzoetan bilera irekiak antolatuz. Horietan, aurrekontuen azalpena emateaz gain (zelan banatzen den gastua, nola dagoen egituratuta, inbertsietarako zenbat bideratzen den...), Udalak aurreikusten dituen proiektuen berri emango dute: Sopela mailan eta dagokion auzoaren proiektuak. Azkenik, herritarrek euren ekarpenak egiteko aukera ere izango dute. Hala, herritarrek zuzenean Udalaren egitekoa gertutik ezagutzeko aukera izango dute. Auzo bilerak urriaren 29tik azaroaren 6ra arte egingo dituzte. Horietan edozeinek parte hartu ahal izango du.

Info+: www.sopelaudala.org

Emakume gazteen egoera
Prozesu partehartzaile baten bidez lortutako emaitzak aurkeztuko dituzte



Diagnostikoa urriaren 24an aurkeztuko dute Kurtzion

Sopelako Udalak herriko emakume gazteen errealitatea ezagutzeko asmoz abiatutako ikerketaren emaitzak ezagutzera emango dituzte urriaren 24an, arrastiko 19:00etan, Kurtzio kultur etxean. Udalak emakumeen berdintasun eta desberdintasun egoeren eta beharizanen inguruko diagnostiko partehartzaile bat abiatu zuen, bi helburugaz: alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko aukeren eta berdintasunen aurrean emakume gazteek egiten dituzten eskaerak zeintzuk diren ezagutzea; eta bestetik, emakume gazte horien parte-hartze indibi-

duala eta kolektiboa sustatuz, emakume gazte horien topaleku bat sortzea bultzatzea. Diagnostikoa egiteko, kontzientzia handia duten hainbat emakumegaz lan egin dute. Hala, ondorioetan genero ikuspegi handia lortu dute, aztertu dituzten eremu guztietan.

Ikerketak emakume gazteek bizi duten errealitateen inguruko informazioa biltzen du. Gainera, hura aurrera eramateko orduan, gazte batzuei kontzientzia pizten lagundu die, emakume eta gizonezkoek pairatzen dituzten desberdintasunetaz jabetuz. ○

Julene Zuazua > Ekimen elkarte

“Euskal gatazkaren ondorioz sortutako traumen testigua eman nahi dugu”



Hitzaldia azaroaren 7an izango da, 19:00etan, Kurtzio kultur etxean

Euskal gizartean bizi den gatazkaren ondorioz sortutako biktimen inguruan arituko da Ekimen elkarte Sopelan. Hitzaldia azaroaren 7an izango da, 19:00etan, Kurtzio kultur etxean. Aipatu elkarte psikologo, psikiatra eta langile sozial talde batez osatuta dago, eta osasun mentala eta giza eskubideen alde jarduten du, giza, kultura eta osasunaren inguruan, ikerkuntza zientifikoa, laguntza eta formakuntza eskainiz. Elkarte horretako kide den Julene Zuazuagaz berba egin dugu.

—Azaroaren 7an biktimen inguruko hitzaldi bat egingo duzue Sopelan. Zer egingo duzue bertan?

—Gure intentzioa euskal gizartean bizi izan dugun gatazkaren ondorioz sortutako traumen edo minen testigua ematea da. Gatazka honen ondorioz biktimei ahotsa ematea eta beraien mina errekonozitzea eta gizarteratzea, horregaz has-ten da-eta traumaren erreparazioa.

—Bideo bat aurkeztuko duzue berbaldi horretan. Zer azaltzen da horretan?

—Bideo horretan agertzen dira urteetan talde-dinamika batean parte hartu duten pertsonen bizipenak eta talde-dinamika, horren ondorioz lortu dute bere sufri-menduaren inguruko ulermena. Horrela, presente egiten dira Euskal Herriko gatazka politikoaren inguruan sortu diren errealitate anitz, urte askotan isilduta egon direnak.

«Alde guztietako mina onartuz lor daiteke bakarrik adiskidetzea»

—Nori zuzenduta dago hitzaldia?

—Hitzaldia irekia da, gure intentzioa errealitate hauek guztiak gizarteratzea baita; alde guztietako sufri-mendua onartzen eta ulertzen bakarrik lor daitekeelako adiskidetze erreala. Horrela, gatazkaren beste ulermen bat bereganatu eta sufri-mendu gehiago ez eragiteko modu desberdin bat eraiki nahi dugu. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK
KONSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

ETXEKO TXIKIENEK ERE
BADUTE ZER EGIN

Egunez eguneko egitaraua prest du Haur Liburutegiak. Ikasturte barria hasi eta neska-mutilentzako eskaintza ezinhobea antolatuta dute: irakurketa gidatuak, lore birziklatuak egiteko tailerra, ingelesa ikasteko tailerrak eta plastilinagaz aritzeko jolasak, besteak beste. Urriaren 31n, gainera, Halloween festa egingo dute.

BADATOR IBILALDI
NEURTUA

Aurtengo Ibilaldi Neurtua urriaren 26an izango da, eta ohi legez, betiko jarduerak egingo dituzte: goizean goiz, 08:15ean, nagusiek izena emon beharko dute Sei Herri tabernan, 09:00etan probari ekiteko. Txikiek, barriz, 09:00etan izena emon eta 09:30ean abiatuko dira. Nagusiek 16 kilometroko ibilbidea egin beharko dute; txikiek, oster, 8 kilometrokoa. Bueltan, 12:30ean umeek birziklatze tailerra izango dute frontoi aurrean, nagusiak triki-poteoan dauden bitartean. Ondoren, bazkaldu eta sariak banatuko dituzte.



ukskateparkberango@gmail.com

Tf. 664 226 700

Sabino Arana 60, BERANGO



Uribefm 107.8

Gorliz Irratia

Niko Fuertes > UK skatepark indoor-eko burua

“Inguru honetan dagoen estalpeko skatepark bakarra da gurea”



Parkea martitzenetik domekara arte dago zabalik, 17:00etatik 21:00etara

Sabino Arana kaleko 60. zenbakian aurki daiteke inguruotako estalpeko skatepark bakarra. Bi hilabeteko ibilaldia izan arren, daborduko txiki geratu da zaleentzat; hori dela eta, handitzea aurreikusi dute. Edozein joan daiteke patinatzer, 4,5 eta 7 euro arteko bonoak ordainduta. Horrez gainera, txikienentzako ikastaroak ere antolatzen dituzte.

—Zergatik estalpeko skatepark-a?
—18 urte nituela, Hossegorren estalpeko skatepark bat egin zutela jakin nuen. Gu bertara joaten ginen ia astebururo, eta dirutza uzten genuen horretan. Hori dela-eta, betidanik gura izan dugu eguneroko patinatze aukera emoten duen parke bat izatea gurean. Denbora luzea emon dugu proiektu honen atzean, baina orain arte ez dira pabiloien eta egurraren prezioak jaitsi; eta krisi garaioan, aurrez aurre aurkitu dugu aukera, eta egiteko ordua izan da. Skatepark honen diseinua eta eraikuntza nik eroan dut aurrera, diru-laguntza barik...

—Zer aurki daiteke bertan?
—Parkeak guztira 360 metro koadro ditu patinatze, egurrez eginda eta estalita, urteko egun guztietan patinatu ahal izateko! Pool bat daukagu, 15X15 metrokoa, alde bitan banatuta: miniram

«Euskal Herrian dagoen halfpipe handi bakarra egingo dugu»

eta bowl banagaz, eta hainbat kurbagaz konektatuta. Ondoren, txikienentzako gune bat dago, 7X7 metroko miniram batez.
—Zelakoak izan dira parkearen lehenengo egunak?
—Abuztuaren 20an ireki genuen parkea, eta espero genuena baino askoz harrera hobia izan du. Horregatik, bi hilabete barru pabilioiko goiko pisura mugituko gara, oraingoa txiki geratu zaigulako. Bertan, Euskal Herrian dagoen halfpipe handi bakarra egingo dugu, 3,5 metroko altuerakoa, 9 metroko zabalerakoa eta 12 metroko luzerakoa. ○

Mikel Gartzia > Urdulizko Langabeen Kolektiboa

“Enpresek Bizkaiko lan-hitzarmena ezar dezatela nahi dugu”



Orain metroa lurperatzeko lanei begira daude langabetuak

Uribe Kostako hainbat langabetuk inguruko obretan Bizkaiko lan-hitzarmena ezartzeko hainbat mobilizazio burutu dituzte azken aldian. Enpresek, diru publikoaz baliatuta, kanpotarrak egoera prekarioan lan egiteko ekartzen dituztela ere salatu dute.

—Azken egunotan hainbat mobilizazio burutu dituzue Urdulizen lan duina eskatzeko.
—Bai, urte bi daroatzagu enpresei aurre egiten. Bestalde, Viuda de Sainz SA enpresaren kontra ere egin gura dugu. Ustelkeria kontuetan murgilduta dagoela diote hainbat hedabidek, hala nola, Leioako Pinosoloko kontuagaz. Horrelako enpresek ez digute inolako enplegurik ematen, nahiz eta diru publikoagaz jokatu. Bestalde, metroa lurperatzeko lanen arazoa dago. Lan horietarako, 150 langile ekarriko dituzte Portugaletik eta Errumaniatik, baldintza prekarioetan jardungo dutenak. Gure ustez, lan horiek burutzeko, lanpostuen %20 herriak bete beharko luke.

—Horrenbestez, inguruko jendea kontratatzea eskatzen duzue.
—Bai, Urdulizera aberastera datozen enpresa guztiek herritarrentzako lanpostuak sor ditzaten nahi dugu. Hemen 280 langabe gara, eta uste dugu badela garaia martxan jartzeko. Esklaboak balira bezala lan egiteko jendea ekartzen dute, soldata oso txikiakaz eta lanaldi oso

«Obra hauetarako herriko jendea kontratatzea eskatzen dugu»
luzeakaz. Ezin da horrelakorik onartu! Bizkaiko eraikuntzako lan-hitzarmena ezartzea eskatzen dugu, obra gehienetan ez baitute ezarri.
—Instituzioakaz berba egin duzue?
—Bai, Urdulizko Udalagaz aritu gara, baina ez digute inolako erantzunik eman. Arrazoia dugula diote, baina ezin dutela ezer egin gaineratzen dute. Egia esanda, gure ustetan bai egin dezakete zer edo zer, herrira dakartzaten enpresa guztiak ondo ezagutzen dituztelako. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



uk zure publizitatea hemen !

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz



COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com



zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

KONDOR LEGIOAREN HISTORIA IKUSGAI

Kondor Legioak Gernikan eragindako suntsitzea azaltzen duen erakusketa hartuko du Plentziako Goñi Portalek, Baskale elkartearen ekimenez. Erakusketa azaroaren 3tik 14ra bitartean egongo da ikusgai, eta azaroaren 3an, hitzaldia eskainiko dute.

MENPEKOTASUNARI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko baliabideak eskaintzeko asmoz, Zainduz programa jarri du martxan Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Hala, eskualdean erlajazio-tailerrak, komunikazio-tailerrak, memoria lantzeko jardunaldiak eta laguntza psikologikoa eskainiko dute, besteak beste. Ekimen guztiak doakoak izango dira, baina aldeztasunetik izena emon behar da.

Info+: www.uribekosta.org
Harremanetarako: 946 763 999

BERBALAGUN ETA GURASOLAGUN MARTXAN

Berbalagun egitasmoan izena emoten dutenek, euskaraz jarduteko aukera zabalagoa izango dute. Gurasolagun-en, ostera, gurasoen mintzataldeak osatuko dituzte. 5-6 pertsonako ealdeak dira, eta horiekaz batera arduradun bat egongo da, jarraipena egiteko, ekintzak antolatzeko eta zalantzak argitzeko.

Harremanetarako: 688 849 810

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Barrika

Kozinatzen eta defendatzen ikasteko tailerrak abiatuko dituzte



Harremanetarako: 946 775 163 eta liburutegia@barrika.net

Iraillean euskara, pintura, argazkilaritza eta bixigintza tailerrak hasi ziren arren, urritik aurrera hasiko diren beste bi ikastaro antolatu ditu Barrikako udalak: gazteentzako sukaldaritza tailerra eta defentsa pertsonala. Lehenengoa 12 eta 30 urte bitartekoei zuzenduta dago, eta hiru taldetan banatu dituzte klaseak: 12 eta 16 urte artekoak; 17 eta 22 urte artekoak; eta 22-30 urte artekoak. Klaseak hilaren 17an hasi ziren arren, azaroaren 14an eta abenduaren 19an beste bi saio egingo dituzte, 17:30etik 19:30era, Gure Ixerdia elkarteak instalazioetan.

Defentsa pertsonala eta autobabesa tailerra, barriz, 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Klaseak azaroaren 8an hasiko dira, 09:00etatik 11:00etara, Barrikako udaletxean bertan. Saio horietan prebentzioa, egoerak azkar aztertzea, negoziazioa eta defentsa fisikoa ikasiko dituzte. Ikastaro horietan parte hartzeko, ezinbestekoa da aldeztasunetik izena emon

tea, udal kultur gunean. Ikastaro horiez gainera, Barrikak hainbat kultur ekitaldi hartuko ditu: urriaren 24an, *“Spirit”* filma proiektatuko dute Ander Deuna kultur aretoan, 18:00etan. Azaroaren 7an eta 14an, berriz, 4 eta 10 urte bitarteko neska-mutilentzako irakurketa

«Ikastaroetan parte hartzeko aldeztasunetik izena emn beharko da, udal kultur gunean»

suspertzeko tailerrak egingo dituzte, 18:00etan, liburutegian. Horietan parte hartzeko izena eman beharko da. Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna ospatuko dute, Emakumeen Hitzak elkartearen eta udalaren eskumenez; eta azaroaren 30ean, barriz, barrikotzarrentzat hain berezia den Ander Deuna jai-eguna ospatuko dute Goierriko Ander Deuna baselizan, 11:00etatik aurrera. ○

Urr. 20 - Aza. 3

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Paisaia/Red: Getxo.** Urriaren 31ra arte. Algortako Torrene aretoan.
- **Rafa Villaren margoak.** Urriaren 31ra arte. Algortako azokan.

LEIOA

- **Gerra zibila eta memoria historikoa Leioan.** Azaroaren 30era arte. Kultur Leioako erakustaretoan.
- **Goazen gudari danok.** Urriaren 30era arte. Kultur Leioan.

PLENTZIA

- **Perretxiko Astearen argazkiak.** Urriaren 27tik azaroaren 2ra. Goñi Portalen.
- **Legion Condor.** Azaroaren 3tik 14ra. Goñi Portalen.

ZINEMA

BARRIKA

- **Spirit.** Urriak 24, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoan.

ERANDIO

- **Ice Age IV.** Azaroak 1, 17:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.
- **Una cita para el verano.** Azaroak 1, 20:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.

ANTZERKIA

ERANDIO

- **Urrezko sagarra (Kukubiltxo).** Urriaren 24an, 18:00etan, Erandiogoikoko gizarte etxean; eta urriaren 29an, Astrabuduko liburutegian. Doan.

Odei Barroso eta Xabi Paya hizketan eta bertsoetan jardungo dira urriaren 30ean

► **Jardunaldiak**
Iparra Galde Gabe, urriaren 23tik aurrera

Ipar Euskal Herria Getxon ezagutzera emoteko egiten da Iparra galdu Gabe programa eta aurrean lau ekitaldi izango dira, doan. Urriaren 23an, Itxaro Bordak parte hartuko du Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa; EGIZUK antolatu du eta Algortako Aldai Patronatuan izango da, 19:00etan. Hilaren 28an, Eneko Bidegain jardungo da *Munduko Lehen Gerla Iparraldean samina, Bizkaian aberastasuna gaiari buruz, Areetako Elkartearen*, 19:30ean. Urriaren 30erako, *Berbetan eta bertsoetan* ekitaldia antolatu dute ALBEK eta UK-k, Odei Barrosogaz eta Xabi Payagaz. Amaitzeko, azaroaren 4an, Gastro-kontzertua egingo dute Algortako The Piper's Irish Puben, 20:00etan.

• **Non:** Algortan eta Areetan • **Noiz:** Urriaren 23tik azaroaren 4ra

- **Punto medio (Burbujak taldea).** Azaroak 2, 19:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.

LEIOA

- **Cesc Gelabert V.O.+ Gelabert Azzopardi Companyia de Dansa (Katalunia).** Urriak 24, 20:30ean. Kultur Leioan. 10 euro.

GORLIZ

- **Urrezko sagarra (Kukubiltxo).** Urriak 25, 18:30ean, Sertutxetan.

BERANGO

- **Txirri, Mirri eta Txiribito Junior.** Urriak 26, 18:00etan. Berango Antzokian. 3 euro.

MUSIKA

BERANGO

- **Nagusien elkarteetako koruak (Astrabudua eta Berango).** Urriak 25, 18:00etan. Berango Antzokian.

SOPELA

- **Not never on time.** Urriak 25, 20:00etan Kurtzion. 3 euro.

ERANDIO

- **Dantzaldia Jamaica orkestragaz.** Urriak 26, 17:30etik 20:30era. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

GETXO

- **Aste korala.** Urriaren 27tik 29ra, 19:30ean. Algortako El Redentor elizan. Doan.
- **Muscovite Chamber Orchestra.** Azaroak 2, 19:30ean. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 8 euro.

LEIOA

- **Martirio eta Raul Rodriguez.** Urriak 31, 21:00etan. Kultur Leioan. 15 euro.

BESTEAK

GETXO

- **Hitzaldia: Etxerako lanak?** Urriak 22, 17:30ean. Algortako Juan Bautista Zabala ikastetxean. Doan.
- **Kirol-festa familientzat.** Urriak 26. Fadura kiroldegian.

ERANDIO

- **Ondarearen jardunaldiak: Erandiogoikora bisita gidatua.** Urriak 25, 11:30ean. Udaletxetik.
- **Nazioarteko Putxera-Lehiaketa.** Urriak 25, egun osoan. Astrabuduan.

GORLIZ

- **Familiarteko Berbalaguna.** Urriak 26, 11:00etan. Kiroldegian.

PLENTZIA

- **Gastronomia hitzaldia.** Urriak 28, 19:00etan. Goñi Portalen.

SOPELA

- **Putxera Eguna.** Azaroaren 1ean.

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



TopaEguna Txorierrin

Urriaren 11n ospatutako TopaEgunaren deialdiari erantzunez, Txorierriko enbixadapena eskuan, Uribe Kostako euskaldunak eta euskaltzaleak ere topa egitera hurreratu ziren Deriora! Aurten Tximintx el-kartea anfitrioi, inguruotako hainbat elkartegaz eta Topaguneagaz batera antolatzen den euskaltzaletasunaren alde topa egiteko jai eta truke-eguna da ekimena; egunak emondakoen lekuko irudiok... Eta gora kopak!

Argazkiak: **Aner Mentxaka, Ane Leniz eta Oihane Goienetxe**





Berango

Karabiganetik, 1971

Horrela da, bai. Berangoko Guzmango Santo Domingo eliza (XIII. mendekoa) ikusten da irudi honetan eta, haren eskuinean, udaletxearen zati bat. 1971n egin zuten argazkia eta Karabigane auzotik atarata dago. Gaur egun, agian, zailagoa litzateke eraikin horiek horren argi ikustea, landak etxez bete dira-eta. Hamarkada gitxian Berangok izan duen hazkuntza erraz suma daiteke, berbarako: 1970ean 2.900 biztanle zeuzkan herriak; 2011n, barriz, 6.812. Eraikin-multzo honen atzean ere, landak eta baserri eremuak dira nagusi. Aurrerapena, hazkuntza... denbora badoa aurrera; gorde ditzagun irudiok, izan ginelako gaur egun ere bagara-eta.

IMANOL RODRIGUEZ MASTIGANEK UTZITAKO ARGAZKIA

[berbetan]

Urriaren 31n (21:00; sarrera: 15 euro) kontzertua emango du Maribel Quiñones Gutierrez (Huelva, 1954) *“Martirio”* abeslariak Kultur Leioan. 30 urte baino gehiago daroa musika munduan: Jarcha taldean hasieran, gero Kiko Veneno eta Pata Negragaz bere lehenengo diskoa kaleratu zuen 1986an. Espainiako eta Hego Amerikako kantu herrikoien berreskurapenean eta berri-tzean aitzindaritzat dute adituek; Espainiako kopla eraberritu duela diote, bere leku-denbora mugez gaindi hedatuz. Flamen-koa, jazz, bossa nova, tangoa, boleroa, edo sevillana estiloak jorratu ditu; *“Martirio”*-z berba egiten dutenean garaikideta-suna, abangoardia eta fusioa aipatzen dituzte. Raul Rodriguez semeagaz kaleratu du *De un mundo raro* azken diskoa, Chavela Vargas kantari ospetsuari gorazarre egiten dion lana; besteak beste, kantu horiek eskainiko ditu Leioan.

Martirio

Musikaren maiteminez...

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Jesus Ugalde**

—Hilaren azken egunean, Leioan, es-kainiko duzu kontzertu-ikuskizuna. Zer topatuko dute hurreratzaren direnek?

—Raul eta biok plazaratu dugun azken diskoan oinarritutako emanaldia egingo dugu. Chavela Vargasi eskainitako eta be-re omenezko lana da; flamenkoaren kon-pas edo neurrira egokitu ditugu bere kan-tak bertan. Raul eta biok, biek batera, parte hartzen dugu, duo kontzertua da. Indar eta bizitasun handiko emanaldia da: batetik, flamenkoa, bigarren zati bate-an nire betiko kantu batzuk abesten di-tut, tangoa eta kopla dago, blues eta jazz ikutuak... baina, batez ere, noski, flamen-koa! Bizitzan egin ditudan emanaldirik eta ederrenetakoa dela esango nuke, ikus-kizun aldetik, alegia; Chavelarekiko sen-titzen dudun hurbiltasunagatik eta maita-sunagatik, lan hau guztia plazaratzea nire-tzat izan den irakaspenagatik, eta Raule-gaz soinez soin lan egiteko aukera eskaini

didalako, elkarren alboan... Bera ere Cha-velaz maiteminduta dago, eta momentu honetan biak batera jotzeko eta abesteko aukera izatea benetan ederra da. Orainsu kaleratu du bere bakarkako lana Raulek, eta hain da polita diskoa, ezen uste dut oso ondo joango zaiola, lan asko izango duela, jendeak gustuko izango duela. Ho-

“Loria bedeinkatua eman dit musikak! Agian, segurtasuna edo egonkortasuna sakrifikatu behar izan ditut...”

renbestez, halako aukerak aprobetxatu beharrekoak dira: halako emanaldiak egi-tea, zure lur eta herri horretako jendea-rentzat! Nire ustez oso ondo ulertzen eta jasotzen dituzuelako gogo-bihotzez egi-ten diren gauzak, benetakoak; musikari dagokionez, ondo eginda daudela, oina-rrian lan handia, zorrotza dutela, ederto

antzematen duzue iparralde horretan.

—*De un mundo raro* diskoa, ikuskizuna sortzeko eta osatzeko bidea zelakoa izan da? Egin duzun ikuskizunetatik ederre-netakoa dela aipatu duzu...

—Chavelaren lagun handiak ginen, alka-rregaz egon ginen eman zituen azkeneko kontzertu bietan... Eta handik hilabete

batzuetara hasi ginen Raul eta biok lan bat alkarregaz prestatzen; bata bestearen alboan, biak batera, gu biok bakarrik le-henengo aldiz, zerbait sortzeko gogoas-paldirik genukan, eta kantuak-eta auke-ratzen hasi ginenean, Chavelak abestuta-koren bat irtetzen zenean, ufa! Zerbaitek argitzen zigun barru-kanpo osoa! Beraz,



berari omenaldi bat egitea erabaki genuen, horrenbeste kontu irakatsi zizkigun! Eta Mexikok eta Espainiak badutelako lotura estua, fusioa oso natural ematen da beraz, azpitik irakurtzen jakinez gero, loturak erraz antzeman daitezke, hor daude... Lotura horiengatik, flamenkora egokitzea ia naturaltasun irtetzen da! Oso hunkigarria da, zirrargarria, berarengatik ikasi dudalako abesteko modu bat, modu hori... Raulek ere ikasi du jotzeko, abesti batzuk gitarraz laguntzeko eta osatzeko modu hori: beharrezko duten adierazkortasuna, etenak eta kontuan hartzea... Emozioz eta sentimenduz betetako lana da!

—**Zelan eta zergatik aukeratu dituzue diskoa osatzen dute 10 abestiak? Hamai-ka izan zitezkeen...**

—Noski, askoz gehiago izan zitezkeen, Chavelak erreperitorio zabala zuen! Azke-nean, nire bizitzarekin eta nire pentsazeko moduarekin bat zetozen abestiak aukeratu genituen; hala egiten dut beti! Nireak ez diren kantak erabiltzen ditudanean nire parte izan behar dute, edo nik hori konta eta kanta nezakeela sentitu behar dut, eta askotan kanta nezakeela gainera! Horregatik ez dut inoiz abesti herraturik edo gorrotatzailerik kantatzen! (kar, kar) Badirudielako abesten dena (barruan) lotzen dela! Bestalde, kontuan izan genuen ondo egoki zitezkeen kantak izan behar zutela, hau da, seguidillara, buleriara, zambrara, granadinara eta abarrera, flamenkoaren moldeetara ondo egokitzen zirenak, Raulek egokitu dituenak.

—Entzun-irakurri dugu, bai zuk esanda, bai Chavelak esanda: ez dela inoiz joango eta ez dela joan!

—Hala da, bai. Arrakasta zer den galde-tzen didatenean, beti zera erantzuten dut: niretzat, kasu honetan legez, arrakasta da hain itzal ederra uztea, zure eragina lotu dadila, zure bizitzaren eta obraren aztarna uztea, zuk ereindako zelai horretan jarrai dezatela edertasunaren hazia landatzen, edertasuna bilatzen, egia bilatzen... Bai musikan, baita bizitzan ere!

—**Nozbait galdetu ei zizun Chavelak ea zergatik zuk ez duzun arrakasta handi-
goa, ezta?**

—Bere abestiekin egin nuen lehenengo diskoa, *Flor de piel*, entzun zuenean galde-tu zidan hori, lehenengo aldiz bere abesti birekin osatu genuen lan hura... Entzute-an egin zidan galdera, (kar, kar, kar) Eta badakizu, bada... Arrakasta hain da erlati-

“Ez dut inoiz gogoa galdu nahi! Dauka-dan heinean, plazera izango da musi-karen abentura handi hau bizitzea!”

boa! Niretzat arrakasta izatea musikan 30 urte baino gehiago eroatea da, jarraitzeko gogoa izatea eta lanean jardutea! Hori da niretzat arrakasta handia izatea... Bestalde, jakina da, zorroztasunez lan egiten badu-zu, izaera jakin bat duzunean, ez diezune-an uzten eros zaitzaten, edo ez diezunean zure burua saltzen, ondo egiten ez dizuten istorioetan sartzen ez bazara... Eta ni hala-koa naiz, ez nabil ospe soilaren bila, kontu komertzial bat saldu nahian... Zintzo eta prestuki, modurik eta intuiboenean eta sortzaileenean jardunez gero... Jakina da, argi dago, hori guztia ez dela ezkontzen aberats edo dirudun izatearekin! (kar, kar, kar) Inola ere ez!

—**30 urte baino gehiago hauetan zer eman dizu musikak, kantuak? Zerbait ukoaraztea ekarri dizu?**

“%21eko BEZarekin gu birrintzen ari dira! Sostengaezina da! Zuzenekoetatik bizi gara... hala, kontuak zelan egin?!”

—Batetik, bere osotasunean bizitza zer den ikasteko aukera eman dit; musikare-kin emakume eta artista bezala hazi egin naiz; maitatu nuen eta maitatzen dudan jende liluragarria ezagutzeko aukera eman dit; ametsetan ere irudikatu ez nituen le-kuetan egoteko aukera eman dit, bidaiatzea izugarri gustuko dut! Eta beste kultu-

ra batzuk ezagutzea, eta musika nahastea, fusioa... Musikariak ezagutzea... Ufa! Lo-ria bedeinkatua eman dit musikak! Beste-tik, estualdi asko ere eragin dizkit, askotan beste ogibide batean lan egin behar izan dut diskoak plazaratzeko eta ordaintze-ko... Proposamen berriak izan ohi direlako nireak, eta jendeak beldurra izan ohi die beti kontu berriei... Gero, agian, segurtat-

sunat edo egonkortasuna ere sakrifikatu behar izan ditut, ziurrenik; ez daukat inolako segurtasunik ezertan ezta ezertaz ere! Ez kontu ekonomikoetan, ez maitasun kontuetan, ezta bestelakoetan ere... Jende-ak bilatzen duen eta lortu gura duen se-gurtasun hori, nik ez daukat! Bidean utzi-tako zerbait izan da; agian, horrek eragin du hain oldar eta kementsu jarraitzeko! Erosotasunik ez edukitzean, bada... Baina bere bidea bakoitzak aukeratzen du, zein bide jarraitu bakoitzak erabakitzen du; bi-hotzak diotsunari kasu egin eta horri jarraitu, ala ez. Musikariaren bizimodua ez da inoiz erraza izan Espainian; urte batean ondo doakizu, eta hurrengo lauetan kili-kolo... Beti zure burua berasmatzen ibili behar hori, zelanbaiteko azterketa bat gainditu beharrarekin ibili behar izatea

beti... Ez da batere erraza, baina hain da ederra! Benetan, merezi du!

—**Azken disko hau argitaratzeko ere zail-tasunak izan dituzu, ezta? Musikan 30 urte baino gehiago jardun izan arren, autoekoitzi behar izan duzelako...**

—Gerora, Unibersalek hartu du lizentzia-rekin. Gehienak berdin antzera gabiltza,

musikari gehienok gure lana autoekoitzi behar izaten dugu; lehenengo zuk ekoitzi diskoa, eta gero konpainiaren batekin li-zentzia lortu. Gaur egun ez da garai bate-an legez, ekoizpena ordaintzen zizutela, dagoeneko hori oso kasu gutxitan egiten dute, artista jakin batzuei baino ez. Gure-tzat ez da batere erraza, batere! Honetan jardutea oso zaila da orain, eta gainera,

“Sinesten duzun horri bizia eskain-tzen diozunean, horregatik naiz “*Martirio*”, ez dago kontzertu txarrik!”

%21eko BEZarekin gu birrintzen ari dira! Musikarentzat eta kulturarentzat oso mo-mentu gogorra da, benetan. Halere, sor-kuntza aldetik oso momentu liluragarri ederra bizi dugu, maila guztietan eta mu-sika estilo guztietan, talentu eta gaitasun handiko jendea gauza berri asko egiten da-bil... Baina lan hori guztia ez dago babes-tuta, edo babes oso txikia du... BEZ hori sostegaezina da, jasangaitza, ezin dugu BEZ horrekin lan egin! Emanaldiengatik ordainarazten diguten portzentaje horrek kontzertu guztietan eragina duelako, eta hortik ateratzen dugu eguneroko ogia or-

daintzeko beste, kontzertuak dira bizitze-ko dugun iturri bakarra; gaur egun ez da ia diskorik saltzen, ez behintzat garai bate-an legez... Beraz, kontzertuen mende gau-de, eta horiengatik SGAEri %21 ordaindu behar badiogu, eta horren ordainetan gero jendeak sarreran kopuru hori gehiago or-daindu behar badu, orduan jende gutxia-go doa zuzenekoetara... Hala, soldatak,

hotelak eta bidaiak ordaintzean, esadazue kontuak zelan egin! Halere, ez nabil kexa-ka bakarrik, onartu behar dudalako aurten lan nahikoa izan dudala... Baina, musika-ri denok egoera oso gogorra bizi dugu; eta hasiberrientzat zer esanik ez! Fedea, ilusioa eta musikarekin, eta oro har kulturarekin, maiteminduta egon behar duzu, honetan lan egiteko; ez kobratu arren...

—**Zure hastapenak zelan gogoratzen di-tuzu? Eta hasten dabiltzanei zein gomen-dio emango zenieke?**

—Musika da zoriontsuen izan naizen eta, gaur egun ere, naizen arloa; horrenbeste

gauza eder eman dizkit, hainbesteko tris-turatik atera nau, hainbeste zorion-une eskaini dizkit, asko dakien jendearen, nik baino gehiago, ingurura hurbiltzeko auke-ra eman dit eta asko ikasteko aukera ere bai... Beraz, hartutako bidea hautu ona izan dela uste dut, horretarako nagoela he-men, komunikatzeko, sentitzeko eta ko-munikatzeko! Indar handia nuen, aurreiri-tzi falta handia, lehertzeko beharra... Ga-rai iluna bizi izan genuelako aurretik. Eta aurrera jarraitzen dut, agian ez lehengo indar horrekin, baina beste batekin bai! Eta gogotsu, gogo ezberdinekin baina oso gogotsu! Aldarrikapen handiagoa egiten dut ‘izan’-en alde, ‘eduki’-ren alde baino. Garai batean baliteke aldarrikapen han-diagoa egin izana, ez dakit, ezarritako este-reotipoetatik irtetzeko eta... Baina, esan-dakoa, benetan, gogoa da galdu nahi ez dudana... Gogoa dudan heinean, plazera izango da musikaren abentura handi hau bizitzea! Eta hasiberriei esango nieke: ez diezaitela utzi eros ditzaten, ez saltzeko euren burua; fida daitezela euren senaz; asko ikas dezala; musika asko entzun deza-tela eta bere baitan bila dezatela euren-a, hobe-a ala txarragoa izango da, baina eure-na eta bakarra izango da. ○

Flamenkoa gurean ondo hartua?

—**Kontzertu berezirik baduzu akor-duan?**

—Bira honetako emanaldi baten oroi-men berezia daukat, bai; Cuernavacan (Mexiko) eman genuenarena, hain zu-zen ere. Handik kilometro gitxira bizi izan zelako Chavela, eta berarekin han egondakoak gara, eta oraingoan ere etxean izan ginen... Haren alaitasunak bizirik dirau han... Eta emozio handiko kontzertua izan zen! Eta kontzertu txarrik ez dudala izan esango nuke, bene-tan; atzera begira, ziurrenik batzuk bes-te batzuk baino hobeak izango ziren, baina txarrik ez dut gogoan! Den-dena emanez gero, uste dut, ez dagoela kon-

tzertu txarrik! Zale gutxiago egon daite-ke, edo egun batean beste batean bai-no harrera beroagoa egin diezazukete, edo zuk zeuk ere gorpuzkera hobe-a izan... Baina sinesten duzun horri bizia eskaintzen diozunean, eta horregatik daukat, besteak beste, “*Martirio*” deitu-ra, ez dago kontzertu txarrik! Den-de-netik badagoelako zer ikasi! Eta bide batez esan nahiko nuke gogo handia dudala zuenean kantatzeko, iparralde horretara hurbiltzeko... Badakidalako egiten duguna ulertzen duzu-ela, eta jendeak gogoko duela... Nik na-hi baino gutxiagotan hurbiltzen naiz ho-rra, oso gustuko izan arren zuen lurra,

janaria, jendea, paisaia eta zelan entzu-ten duzen!

—**Flamenkoa ez dugula gogoko, ez dugula ulertzen topikoa oraindino badela uste duzu?**

—Ez, ezta pentsatu ere! Topiko hutsa da! Gogoko eta oso gogoko duen jende asko dago hor, eta ezagutzen duena... Flamenko berriak, demagun Raimundo edo Kiko Venenorenak, arrakasta han-dia dauka iparralde horretan! Estrategia komertzialen istorioak dira, ez du zeri-kusirik musikarekin! Gu gehiagotan ala gutxiagotan joateak ez du zerikusirik jendearen gustuekin, noski! Flamenkoa primera ulertzen duzuela uste dut!



Arte-bizitza

Txikitatik gustuko du argazkilaritza Gorka Larrea Ondarroa areetarrak. Argazki-dendetan lan egin du, eta erreportajeak egin ditu ezkontza eta jaunartzeetan. Paisaien eta kirol-ekintzen irudiak ere hartzen ditu baina, batez ere, erretratuak gustuko ditu: sepian edo koloretan, pertsonen onena islatzeko. Oraingoan, Getxo-Folk jaialdian egindako argazkiak dakartza. Aipatu ideiarri jarraituz, jotzen duten musika sentitzen duten pertsonak atara ditu; berak legez, artearenganako pasioa erakusten dutenak.

Argazkiak: **Gorka Larrea Ondarroa**







Liztor asiarra > erlezaintzako buruhauste galanta

Gurera iritsi da liztor asiarra: erlezaintza pairatzen hasi da lehen ondorioak

Bizkaira heldu da liztor asiarra eta erlezaintzan nabaritzen hasi da, erlategi askok erasoak pairatu dute eta izurria zabaltzen hasi da. Erlezainak aurre egiten ahalegin-tzen dabilta, baina etorkizuna zalantzazkoa da: ikusteko dago liztor kopuruak noiz joko duen goia eta zenbaterainokoa den.

“**Liztor** hiltzailea” esaten dio askok baina, antza, oso mantsoa da gizakiagaz. Arazoa da bere larbak hazteko okela asko behar duela eta, gurean, bereziki erleak gustuko dituela; espezializatu da. *Vespa velutina* edo liztor asiarra aurten iritsi da Bizkaira eta erlategiak erasoak pairatzen hasi dira.

Vespa velutina 3,5 zentimetro neur-tzen du, gitxi gorabehera, eta eztenak 6 milimetro inguru. Tamaina aldetik bertor-ko liztorraren parekoa da, *Vespa crabro*,



Liztorren habia

kolorean bakarrik desberdintzen dira: asiarrak ia bizkar osoa baltza dauka, bertokoak hori-marroia. Javi Larrinaga Leke-rika Bizkaiko Erlezainen Elkarteko kideak

azaldu digunez, biek harrapatzen dituzte erleak, baina asiarrak ez daukate toperik, gehitzen eta gehitzen doaz: “*Bertokoak,*

Bertoko liztorraren oso antzekoa da, baina hemengoak ez du arazorik sortzen

barriz, tope batzuk dauzka eta hortik gora ez du jotzen, beraz ez da problematikoa”. Gainera, ez dauka ia predatzailerik.

Zer gertatu da aurten? Ez dela egon negurik eta ez diotela utzi kumeak egitea-ri: “*Neguan ez dira hil eta lan egin dute pila bat, oporrik gabe*”. Kolonizaio aldian daude eta kantauriar isurialdea ia-ia har-tuta daukate. Donostia ingurua beteta dago eta Bizkaian hiruzpalau urtetan joko dute goia: eta neguak zelan doazen eta



Vespa velutina edo liztor asiarra; eskualdean harrapatutako alea

zenbat janari dagoen, azkenean egongo dira liztor gehiago edo gitxiago. “*Baina daborduko izurria da*”.

Arazoak eta aldaketak

Bizkaian 10.000 erlauntza eta 600 erle-zain baino gehiago daude; horietatik pro-fesionalak dira 15 inguru, 150 erlauntza

baino gehiago dauzkatenak. Daborduko, liztorra “*arazoa da*” danentzat. Horren aurrean zer egin? “*Tranpak ipintzea, ez dago besterik. Normalean, udabarrian ipintzen ditugu erreginak harrapatzeko. Maiatzetik irailera ezer ez, baina oraindik aurrera urte osoan ipini beharko ditugu*”.

Beraz, oraingoz arazoa erlezaintzak

dauka, baina izurria zabaltzen hasita, bio-dibertsitate arazoa ere ekarriko duela uste du Larrinagak: elika-katea aldatuko dela. Pertsonak, hasieran, “*ez dute nabarituko, baina aldaketa emongo da, liztorrak kon-turik gabe gehituko direlako*”. Halere, erle-zainak dioenez, “*ez dira gaiztoak; kontra-ra, oso mantsoak dira: ez badituzu oratzen ez dizute ezer egingo*”.

Liztorrak topatuz gero, zer egin?

Jendeak ez du jakingo *velutina* edo *crabro*

Ez da negurik egon, ez dira hil eta lan egin dute opor barik: daborduko izurria da

den, beraz Bizkaiko Foru Aldundiko Base Gorrira deitu behar da: “*Bertokoa bada, ez dira joango, kalterik ez badu sortzen. Baina asiarra bada, joango dira eta ez dute kobratuko*”. Liztor erreginak hazita dau-denean, habiak zuhaitz altuetara aldatzen dituzte, 25 metrora, eta ez dago topatze-rik. Bakoitzean egon daitezke 3.000 eta 4.000 liztor artean. Beraz, mantsoak izan arren, habia ikusiz gero ez hurbiltzeko go-mendatu du Larrinagak. ○

Borja Fernandez de Pinedo Gutierrez > erlezaina

“Pestiziden borroka irabazita geneukanean liztor asiarra iritsi da eta izorratu gaitu. Beraz, oraingoz, tranpak eta pazientzia”

Berangoztar gazte honek erlategiak dauzka Uribe Kostan, Mungian eta Arra-tian. Liztor asiarraren erasoak pairatzen hasi da uda honetan.

—**Ogibide duzu erlezaintza?**

—Nekazaria naiz eta hau lanaren zatia da, osagarri bat: ezta eta propoleoa sal-tzen ditut. Badauzkat 35 bat erlauntza Bizkaiko hainbat lekutan: Mungian, Berangon, Barrikan eta Arratian.

—**Liztor asiarra iritsi da bertara?**

—Bai, batez ere Mungiara. Han ba-dauzkat zortzi erlauntza eta horietako bat suntsitu didate. Aurten agertu dira liztorrak lehenengoz, iaz ez nuen ikusi bat ere. Abuztu honetan topatu nuen le-henengoa, baina bakarra zenez, ez nin-tzen arduratu. Baina hurrengo hilabete-an ez zen bakarra: erlauntza bakoitzaren atea zaintzen bazeuden hiruzpalau. Gai-nera, txandakatzen dira ehizatzeako: ba-

tek erle bat harrapatzen duenean beste liztor bat dator bere lekua betetzera. Liz-tor bakoitzak, egunero, 50-60 erle eroa-ten ditu. Bi hilabetetan erlauntza bat suntsitu didate. Gainera, erleak ez dira ausartzen erlauntzatik urtetera; ondori-oz, ez dute jaten eta ahul daude. Orain negua igarotzeko prestatu behar dute eta jaten emon behar diet, hilko ez badira. —**Zelan egiten diezu aurre liztorrei?** —Tranpak ipini eta sareagaz ehizatzen

ditut, baina liztorren erlauntza bakoitzean 1.500 eta 3.000 liztor artean daude eta oso zaila da aurre egitea. Aurten Mungian egin didate kaltea, baina datorren urtean aurreikusten dut gehiago zabalduko dire-la, Uribe Kosta Mungiatik gertu dago-eta. Arratia aldea lasaiago dago.

—**Beraz, zelan ikusten duzu etorkizuna?**

—Oso gatz. Saiatuko gara erleak mendi-ra igotzen, esaten dutelako 1.000 metro-tik gora ez direla igotzen liztorrak. Hain-bat erlezainek eskatu dugu baimena Gor-beiara eroateko eta, lortuz gero, datorren urtean igoko ditugu, ezta atara ostein. Bestela, tranpak eta tranpak. Baina Mun-giakoak Arratiara eroango ditut berehala. —**Instituzioei zer eskatuko zenieke?**

—Beno, ea Aldundiak zer edo zer egiten duen. Iaz entzun zen liztorren erlauntza asko kendu zituztela, baina aurten ez dut entzun askorik kendu dutenik.

—**Jendeak emon behar die abisua horre-lako bat topatzen badu, ezta?**

—Bai, baina saia daitezke patruilak ipin-tzen horiek topatzeko. Erleak horren gar-rantzitsuak badira zaindu beharko dira, ezta? Eskatuko nieke erlategiak Gorbeia-ko parke naturalera igotzeko trabarik ez ipintzeko, guztiona da-eta. Gainera, par-kearentzako oinarritzak da bertan erleak egotea, baina abeltzainen mafia dago. Ardiek, behiek eta zaldiek jateko batzuen artean banatuta dauzkate zelai guztiak, eta ez dute gura guk erleak ipintzerik. Ez zaie



interesatzen txilardirik egotea, dena belarra gura dute. Etorkizun beltza dau-kagu: pestiziden borroka irabazita ge-neukanean liztor asiarra iritsi da eta izo-rratu gaitu. Beraz, oraingoz, tranpak eta pazientzia, besterik ez dago. ○



Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra

Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



GIZONENTZAKO MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf.94 460 70 84

[zinema]

Bideo-lehiaketa

Gazteei begirako ikus-entzunezko lan laburren lehiaketa martxan du **Gaztezulok**



V.GAZTEZULO

Bideo Lehiaketa

1.go saria **1.200** euro
2. saria **300** euro

Info+: www.gaztezulo.com

Gazteei zuzendutako euskarazko Gaztezulo hilabetekari eta agerkariak “16 urtetik gorako gazteek” parte hartzeko bideo-lehiaketa antolatu du aurten ere. Aurtengoagaz ekimenak bosgarren ekitaldia izango du, eta hala aurkeztu dute gaia: *“Politak dira festetan egiten ditugun trentxoak, ezta? Munduko politenak dira inora ez doazelako”*; *Jep Gambardella (La grande bellezza, 2013)*. *Nora doa zure trenara? Zertan ematen duzu denbora? Zerk ematen dizu bizia? Buruari eta bihotzari eragin, eta zure mundua edo munduak bideo labur batean jaso ditzazun nahi dugu*. Hala, bideoek “Hi eta hire munduak” gaia izango dute oinarri.

Azaldu dutenez, ikus-entzunezko lanek *“bizkuntza edukiren bat izatekotan (ahotsa, musika, elementu grafikoak...)”* euskarazkoa izan beharko du, eta iraupenari dagokionez gutxienez 1 minutukoa, eta gehienez 3 minutukoa. Pertsona edo talde bakoitzeko gura beste lan bidal daitezkeela adierazi dute, eta gogorarazi du-

te *“bideoan 16 urtetik beherako neska-mutilik agertuko balitz, ezinbestekoa litzateke guraso edo tutoreen baimena”*.

Bideoak WeTransfer zerbitzuaren bitartez (wettransfer.com) bidali beharko dira azaroaren 6a baino lehenago komunikazioa@gaztezulo.com helbidera. Eta horren albotik, gaztezulo.com webgune-

«Azaroaren 6a baino lehenago aurkeztu beharko dira 1-3 minutu bitarteko lanak»

ko ‘Bideo-Lehiaketa’ ataleko formularioa bete beharko dute parte-hartzaileek.

Amaitzeko, sariak ondorengoak: Bideo onenaren egileak 1.200 euro jasoko ditu; bigarren bideo onenaren egileak 300 euroko (sariei PFEZa atxikiko zaie) saria jasoko du; eta Ikusleen Saria Gaztezuloren otzara bete material izango da; saridun izanez gero, abenduaren 3an Donostian egingo den ekitaldira bertaratzea betebeharra da. o

Banden Lehia barriro abian

Lehiaketan parte hartzeko azken eguna **hilaren 27a** izango da, arin ibili!



Info+: www.bandenlehia.com

Euskal musika-talde amateurrik onena saritzea du helburu Banden Lehiak, eta bide batez tokiko musika-banda euskaldunak ezagutzera ematea, zein euskara eta teknologia berriak buztartzea. Azkue Fundazioak antolatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak parte hartzen duten ekimena da, eta besteak beste, Baga Biga diskoetxearen eta Last Tour Internationalen babesu dauka. Lehiaketan parte hartzeko baldintza bi daude: musika-talde amateurra izatea, eta gutxienez abesti bi euskaraz izatea. Txapelketa bi fasetan bereizita dago: lehenengoan,

bandek webgunearen bidez izena eman behar dute (urriaren 27a baino lehen), eta bisitariek gehien gustatzen zaien aldeko bozka emango dute; hala banda bi sailkatuko dira; gero, epaimahaiak finalean parte hartuko duten beste banda bi aukeratu ditu. Bigarren fasea final handia da; taldeek zuzeneko kontzertua eskainiko dute azaroaren 28an, Bilborocken.

Talde irabazleak disko bat ekoitzi eta jaialdi bitan parte hartuko du 2015ean: Bilbao BBK Live festibalean eta Bartzelonako Euskal Etxeak antolatzen duen Euskal Herria Sona jaialdian. o

diskoak

Seinaleak
Markos Untzeta
Gaztelupeko Hotsak



Laugarren diskoa du hau Eibarko kantautoreak. Lan intimista osatu du, folk, blues eta rock klasikoena nahasten dituena, erreallitate hurbilari lotuta kantakaz. Gainera, aurreko hiruretan ez bezala, oraingoan gitarra akustikoa, harmonika eta ahotsa besterik ez ditu bere bakarrean, hau da, beste taldekide edo musikari barik grabatu du diskoa.

Azote Kaldüz
Eskean Kristö
Baga Biga



Azkue Fundazioak antolatzen duen eta Bizkaiko Aldundiak bultzatzen duen Banden Lehia musika txapelketako pasa den edizioa irabazi zuen Arratiako taldeak, eta sari legez jaso zuten disko bat argitaratzeko aukera baliatu dute Azote Kaldüz plazaratzeko. Andoaingo Garate estudioetan grabatu dute garai bateko rock-aren irrika dakarren lana.

Gaueko entziklopedia...
2 Princesesbarbudes
Gaztelupeko Hotsak



Bere garaian Pomada taldean jardundako Helena Casas musikari eta diseinatzailerak eta Marc Marcek ondu dute *Gaueko entziklopedia* koxkorra lana, irudi ederrez eta kantu politzez osatutako gaztetxoegi begirako liburu-diskoa. Maialen Lujanbio eta Joseba Tapia izan dituzte lagun hainbat kantutarako; danera, 13 abesti jasotzen ditu lanak. Info+: 2princesesbarbudes.org

[musika]

hitzaldi-zikloa > tresnak Artean

“Musika-tresnak artean” berbaldi-zikloa antolatu du Andres Isasi Musika-Eskolak; dagoeneko hainbat ekitaldi egin badira ere, oraindino eta azaroaren 14ra arteko eskaintzaz gozatzeko aukera duzue. EHUKo Zientzia Fisikoetan Doktore eta Musikene Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegian Akustika Musikalaren eta Organologiaren irakasle den Jose M^a Bretos Linaza algotarra izango da hizlari, eta hauek dira aurrerantzean emango dituenak: hilaren 31n, “Barrokotik gaurkotasunera” eta, azaroaren 14an, “Ekialdeko Artea”. Sarrera doan bada ere, aretoaren edukiera dela-eta, aldeztu aurretik lekua gordetzeko eskatu beharko da Musika-Eskolako Liburutegian, 944 646 011 telefonora deituz, arrastietan, 16:00etatik 19:00etara.

kantaldiak > Aste Korala Getxon

XXXIV. Aste Korala izango da Getxon hilaren 27tik 29ra bitartean. Hiru egun horietako bakoitzerako iragarri dituzten abesbatza-emanaldiak hauek dira: lehenengo egunean, hilak 27, astelehena, SYC Chamber Choir (Singapur) koruak abestuko du; bigarrenegun, hilak 28, martitzena Anatoly Vocal Quintet (Errumania) taldeak; eta azken egunean, Maska Youth Choir abesbatzak (Letonia). GANbera- abesbatzak, boskoteak eta koru mistoak musika polifonikoaren askotariko programak abestuko dituzte. Kantaldiak Algortako El Redentor elizan izango dira arrastiko 19:30etik aurrera; sarrera doan da hiru ekitaldietarako.

REBEL TATTOO



Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkeztzen baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Olerki-lehiaketa


Lauaxetaren “Maitale kutuna” olerkia erabili beharko dute aurten parte-hartzaileek

VII. ekitaldia izango du aurten Mungia-ko Udalak antolatzen duten Lauaxeta Olerki Lehiaketak. Antolatzaileek azaldu dutenez, aurreko urteetan legez, aurten ere “forman eta edukian” lehiaketa irekia izango da, eta betebeharrak bat hauxe: “*lanak osatzeko, Lauaxetaren “Maitale kutuna” olerkia erabili beharko dabe parte-hartzaileek. Balio berezia daukan olerkia dogu “Maitale kutuna”, izan bere, poema horri esker lortu eban Lauaxetak 1930ean, Errenterian, Olerki Egunekeo saria, eta poema horrek berorrek bultzatuta argitaratu eban bere lehenengo olerki liburua. Aurten, beraz, maitasuna izango dogu nagusi*”. Frankistek fusilatu zuten euskal idazle eta poetaren gorazarrez antolatzen da lehiaketa, familiaren Laukizko base-

«Lanak aurkezteko epea azaroaren 11n amaituko da»

rriaren izena, *Lauaxeta*, hartu zuen goitizen Estepan Urkiaga Basaraz (Laukiz, 1905- Gasteiz, 1937) omenez.

Hala, lanak euskaraz aurkeztu beharko dira, “Maitale kutuna” izenburuagaz, baina horren interpretazioa librea izango da; gixtuen 100 bertso-lerro izan beharko dituzte, eta gehienez 200; ahapaldiak,



Estepan Urkiaga Basaraz “Lauaxeta”

neurria eta errima aukeratzeko baldintzarik ez dago. Betebehar danak ondo egin da, lanak Astiunerako Udal Erakundearen Egoitza Nagusian aurkeztu beharko dira (Agirre Jauregia, Aita Elorriaga Kalea 1, 48100 Mungia) zemendiaren (azaroaren) 11 baino lehenago.

Sari bi egongo dira: lehenengoa 800 eurokoa eta bigarrena 500 eurokoa. Epaimahaia azken urteetan legez, Miren Agur Meabek eta Karlos Santistebanek osatuko dute, eta sari-banaketa abenduaren 3an egingo da, Euskararen Nazioarteko Egunean Mungian egiten dan ekitaldian. ○

Info+: www.mungia.org

liburuak



Hemen naiz, ez gelditzeko baina
Markel Ormazabal
Txalaparta

Donostiarraren *Hemen naiz, ez gelditzeko baina* kartzela-kronika honek Lisabören kantu bat hartu du izenburu, eta musika-oihartzunez zipriztinduta daude orriak. Eta kartografo-lanetan dabil egilea: kartzela-geografiaren askotariko lekuak, diskurtsoak eta esperientziak jasoz...



Tunelak, izarak, Mozorroak...
Josu Martinez
Elkar

Hala dio *Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak*-en egileak: “Munduan hainbat ihesaldik izan duten ospea ikusita, beti deitu dit atentzioa *Euskal Herrian gertatu direnei buruz ze literatura gutxi dagoen*”. Hala euskal gatazkari lotutako azken 50 urteetako 10 ihesaldiren kronika proposatu du...

[kirola]

Punta Galea Challenge

Olatu erraldoien munduko surflari onenak arituko dira **Getxon bederatzigarrenez**



Europar egiten den mota honetako lehiaketa bakarra da

Urriaren 15ean hasi eta otsailaren 28ra arteko edozein egunetan egin dezakete Punta Galea Challenge lehiaketa, eguraldiaren baldintzen arabera. Izan ere, aipatu probarako ezinbestekoak dira tamaina handiko olatuak, horixe baita lehiaketa honen ezaugarria: olatu erraldoiak.

Europar egiten den Olatu Handien Munduko Zirkuituaren proba bakarra da Punta Galeakoa, eta aurtengoa Getxon egiten den bederatzigarren edizioa izango da. Horretan, 24 surflarik parte hartuko dute, jardunaldi bakarrean. Alvaro Gonzalez Getxoko Kiroletako zinegotziak azaldu du modalitate honetako munduko rankingean sailkatutako 12 onenek parte hartuko dutela lehiaketa honetan, tartean Grant ‘Twiggy’ Baker egungo txapeldunak eta Greg Long ospetsuak. Haiekaz, nazioarteko 6 surflari eta tokiko beste 6 arituko dira: Adur Letamendia, David Bustamante, Jon Garai, Indar Unanue, Aritz Aranburu eta Natxo Gonzalez. Azken honek proba hau irabazi zuen duela bi urte. “Le-

hiakideak maila oso altukoak dira, eta aurreko urteetan bezalako olatuak izanez gero, ikuskizuna ederra izango da”, adierazi du Gonzalezek. Adur Letamendiaren hitzetan, “*Punta Galeako itsaslabar azpian bizi dena zoragarria da, eta bertara azaltzen den jendetza izugarria da, olatu han-*

«Otsailaren 28ra bitarteko denboraldia ezarri dute eguna hautatzeko»

diak pizten duen zaletasunaren isla. Zorionekoa naiz txapelketa honetara gonbidatu nautelako, Perun eta Oregonen parte hartzeko ateak zabaldu dizkidalako”.

Zirkuitu honen aurreko bi hitzorduak, Hegoafrikakoa eta Txilekoa, ezin izan dira bete, ez dutelako olaturik izan. Ondorioz, Getxon eta Hawaiin erabakiko da zeintzuk izango diren zirkuituaren irabazleak. Horrez gain, aurreko bi lehiaketetako sarien poltsak gehituko zaizkie Getxoko eta Hawaiiko sariei. Hala, irabazleek 75.000 dolar jasoko dituzte bi probetan. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.


- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA



Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak **"Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik"** proiektutik ateratakoak dira, Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoak. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera joan.



Itsaslamia. Ilustrazioa: Daniel Castello

Itsaslamia

Lamia batzuk, gizakiek lurraldeko geroz eta inguru zabalagoa okupatzeagatik beren bizilekua murrizten ikusi zutenez, leku barriak bilatu zituzten kostaldean...

Horrez gain, denborak aurrera egin ahala, egokitzapenak aukera eman zien itsaso hondoko bizitzara moldatzeko. Horretarako, lamiek beren itxura fisikoa aldatu zuten. Hankak desagertu zitzaizkien eta, haien ordeztan, gerritik behera, arrain forma hartu zuten, ahaidetzat hartu zituzten sirenak bezala.

Aitzitik, hauen abestien aztikeriak galbidera eramaten zituen marinelak, izan ere, hain da handia abesti horiek eragindako lilura, marinelak ez direla gogor egiteko gai, sakonenera bultzatzen dituen aldi berean. Hondarribia, Pasaia... bezalako herrietako armarrietan islatuta ageri dira, eta Bidasoako zonaldean ageri dira haiei buruzko aipamen gehien.

Kondaira

XV. mende erdialdera, itsasontzi bat kostatik lar urrundu zen, eta Mutriku urrunean ia ikusezina zen puntua zen. Sakonera hondogabea zen eta, hain zuzen ere ho-

«Egokitzapenak aukera eman zien itsaso hondoko bizitzara moldatzeko»

regatik, harrapakinak handiagoak izaten ziren. Arrantzale zaharrak, semeak lagun, itsasoaren indarraren aurka borroka egiten zuen, itsasontziaren bizkarrera sarea igo-tzen saiatuz. Sarearen pisua ikusita, bazi-rudien harrapaketa ona egin zuela. Besoe-tako mina zuen egindako esfortzuagatik.

-Agian marrazoren bat geratu da sarean

harrapatuta-, pentsatu zuen, arrantzontziaren ertzeraino igotako sarea kareletik agertzen hasi zenean.

Azkenean, sarea karelean zabaldua geratzean, erdialdean ageri zen konkorr izugarri handi baterantz joan zitzaizkion begiak. Sarea alde batera uztea lortu eta... denak hitzik gabe geratu ziren! Han, haien artean, erdi-arrain erdi-gizaki zen izaki handi bat mugitzen zen, brankia modura lepoaldearen bi aldeetan irekitzen ziren zirrikietatik arnasa hartzen saiatuz. Erreakzionatzeko denborarik gabe, olatu eskerga batek itsasontziaren bizkarra ekortu eta izaki hura, zena zela ere, uretan barrena desagerrarazi zuen, apar-arrastoa baino ez zen lotu. ○

Eva Ormaza > euskara, hezkuntza eta kirol zinegotzia

“Euskara kaleko hizkuntza ere badela erakutsi nahi dugu ”

Eva Ormazak (Plentzia, 1976) irakasle eta zinegotzi lanak tartekatzen ditu. Haur Hezkuntza eta Psikopedagogian lizentziaduna da, baina zazpi urte daroatza tokiko zinegotzi. Aitortzen duenez, politikan sartu zen gauzak aldatu gura zituelako. Ibilbide horretako lehenengo urteak gogorak izan zitzaizkion, informazio barik hasi zelako, baina atzera egin beharrean, euskara teknikariaren laguntzagaz aurrera egitea lortu du.

—Zeintzuk dira euskararen ahuleziak,
indarguneak eta erronkak Plentzian?

— Gero eta euskaldun gehiago dauzkagu Plentzian, baina gazteleraren presentzia oso handia da kalean. Nahiz eta euskaraz hasi, tendentzia gaztelerara jotzea da. Gure helbururik garrantzitsuenak euskaraz dakitenei euskaraz mintzatzea da, eta apur bat dakitenei eta ez dakitenei baliabideak eskaintzea. Ekintzak bereziki umeei, gazteei eta gurasoei zuzenduta daude. Talde bakoitzak bere helburua du euskararen normalizazioan, eta hirurak doaz batera, bata bestean eragiten du euskara gizarte-eratzeko orduan.

—Hori lortzeko egitasmorik baduzue?

—Bai, hainbat egitasmo ditugu martxan euskararen erabilera areagotzeko. Horretarako zerbitzuak zein administrazioa bera ere euskaldundu beharko lirateke eta esfortzu handia egiten ari dira tokiko langileak horretara heltzeko.

—Eta erabilerari dagokionez, baduzue ekimenik edo proiekturik martxan?

—Euskararen erabilera esparru ezberdinetara ailegatzeko, gure barnera begiratu eta administrazioa euskalduntzeko helburuagaz, euskararen erabilera plana martxan jarri dugu. Hala, behar duten langileek



Eva Ormaza, Plentziako zinegotzia

Leioa

Biztanle kopurua

EUSTATEk bi urtetik gorako
biztanleak hartzen ditu:

2006an. 4.224 biztanle

2011n, 4.407 biztanle

Euskaldunak

1.479 euskaldun, %35,01 (2006)

1.566 euskaldun, %35,53 (2011)

la-euskaldunak

1.206 ia-euskaldun, %28,55
(2006)

1.452 ia-euskaldun, %32,94
(2011)

Erabilera datuak

%3,9 (2006)

%17,43 (2011).

Harremanetarako:

euskera2@uribekosta.org

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezzen.

Especialistas en
desayunos
abrimos desde las
07:00h.
y 08:00h. los fines de
semana y festivos

C/Iturgibei, 13
48620 Plentzia
Telf.: 94.677.31.28
www.cafebarzuazu.com

**Café-Bar
Zuazu**
Plentzia

f t i

ABIAN
HERRIKO TABERNA

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

berezi
Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

txakoli
**mota
ganeTx.**
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

**GURE
ETXEA**
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

**BODEGUILLA
BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

fugu
sushi take away & delivery

Bat batean eginda japoniar era tradizionalen
www.fugulusarens.com
Evaristo Churrua Kaia 2 (lorja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa

LURPEN
Funtzioak

GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

**KAI EDER
J A T E T X E A**
Menu ederra itsasoari begira

Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com

**portu
zaharra
bar**

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Kalabazin betea

Ortutik itsasora ekarritako mokadua



Pintxoa Algortako Portu Zaharra tabernan eska daiteke

Sopela alde batera utzi eta Algortako alderik xarmangarrienera hurbildu gara oraingoan: Portu Zaharrera. Etxe zuriz jantzitako kaleetan barrena murgildu eta portura jaisten diren eskaileretako beheko aldean Portu Zaharra taberna dauka. Astez leku lasaia den arren, aste akabuetan jendez gainezka egon ohi da. Ez da zaila horren zergatia asmatzea, itsasorako bistak eta portuko eskaileretan eguzkipean esertzeko aukera bertara joateko gonbite ezinhobea da-eta. Bertoko pintxoan artean, deigarri egin zaigu kalabazin betea. Halako pintxo bat egiteko, lehenik eta behin kalabazin zati bat egosi beharko dugu, 10 minutuz. Bitartean, berakatza, piper gorria, tipula, barrengorriak eta surimia zatitu eta oliotan frijitu-

ko ditugu. Kalabazina egosita dugunean, barnekoa kendu eta hustuko dugu. Ondoren, frijitutako guztia hartu eta kalabazinaren barruan sartuko dugu. Hori eginda dugula, patatak hartu eta egosiko ditugu. Ondoren, uretatik atera, txikitu eta esne-gain likidoa botako diogu, loditzeko. Horren ostean, kalabazinaren gainean jarriko dugu, eta horren gainean gazta birrindua bota eta gainerreko dugu. Pintxoa bukatzeko, ogi-xerra bat hartu, horren gainean frijitutako patata zati bat, piper gorri bat eta tipula jarriko ditugu, kalabazinaren ohea egiteko. Prest dugu gure pintxoak! o

Osagaiak: ogia, kalabazina, piper gorria, tipula, berakatza, esne-gaina, oliba olio, patatak, barrengorriak, surimia eta gazta birrindua

**Croissanterie
Brioche**

MONIF-IAIA 1
48991 Getxo (Bizkaia)
CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM

94 460 86 48

uk **zure
publizitatea
hemen!**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzetik z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Ordu aldaketak erabat zoraturko zaitu: nahastuta ibiliko zara egun batzuetan, eguna edo gaua den ere ez duzu argi izango. Urtero legez, oraingoan ere pasatuko zaizu.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ilargi beteagaz aztoratzen zara beti, gure otso maitea, batez ere goizaldeko ordu txikitik kalean bazabiltza. Behin baino gehiagotan koska egin diozu norbaiti, beraz tentuz ibili, faborez!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Beti eseri zara klaseko azken ilaran. Azkenaldian, barriz, kostatzen zaizu arbelan idatzitakoa ondo ikustea eta albokoari galdetu behar izaten diozu. Okulistarenera joateko garaia da.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Lagun batek garbiketa egin du etxean eta arropa zahar guztia atera du. Hainbat jantzi emongo dizkizu, baina pena! Ez dira izango zure gustukoak. Agian hurrengo sortan...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Hitz batek hamaika esanahi eta gauza batek lau izen, horrela zioen *Euskaldun berriaren baladak*. Euskara horrelakoa da, baina ez etsi eta ekin: menperatzea lortuko duzu!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Agenda zereginetaz beteta izango duzu egunotan: hamaika egiteko daukazu, baina ordu gutxi. Estresak itotzerik gura ez baduzu hartu arnas eta aurrera! Laster iritsiko dira egun lasaia goak.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Datozen asteotan ez duzu izango zorte onik, trakets ibiliko zara zeregin danatan. Baina dana ez da zorte kontua eta norberak ere egin behar du ahalegina, animo!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Auto barria erosteko garaia daukazu, zaharra autoak desgiteko tokian utzi duzu-eta. Zuk gura duzu bat handi- handia, baina prezioak begiratu beharko zenituzke lehenengo...

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Bihar egun latza igaroko duzu: ohetik altxatu eta lurrera eroriko zara, gosariko esneagaz mingaina erreko duzu eta abar. Egundak horrelakoak dira, baina pentsatu bihar ere argituko duela egunak.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Udagoieneko hego haize goxoa gustuko duzu, batzuetan apur bat txoratu arren. Horrela ibiliko zara hilotan ere: apur bat txoro eta pozik. Lagunak ere animatuko dituzu zure alaitasunagaz.

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Ohi legez, hildakoen egunean hilerriaz hilerri joango zara hurkoei lorak uzteko. Ez duzu gustuko, baina familia-ohiturak bete behar. Hurrengoan Mexikon bezala ospe zenezaketek...

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Triste zabiltzanek, lagunak sorpresa polita prestatuko dizute eta zenbat maite zaituzten sentituko duzu. Momentu txarretan elkarri laguntzea, hori da modurik onena zultotik urteteko.



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Nabarmendutako gunetako ariketak bideratuz, egoki bete itzazu lauki guztiak, jakinda lerro eta zutabe bakoitzean 1 eta 4 bitarteko zenbakiak ageri direla eta ez dela zenbakirik errepikatzen. Adib.: bi laukiko ariketa “7+” bada, honako hauek izango dira laukiak: 3+4 edo 4+3 (ordena ez da kontuan hartzen).

7+		2*	
1-		4	
2/		10+	
4	2/		

3	2-		12*
2/			
5+		1	2/
12*			

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Nortzuk dira Jentilkobako protagonistak?

- Mari
- Itsaslamina, sirena edo uhandreak
- Sorginak

La Gusana liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 944 911 412

lagusana

SARIA

> Aurrekoaren erantzuna: Bostonen
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***
*deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

Oinutsik

kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf. 944 047 420
oinutsik@euskalnet.net

SARIA

> Aurrekoaren erantzuna: Majed Dibsiri
> Irabazlea: **Goyo Layana***
*deitu telefonoz: 944 911 337


Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIAK UTZITAKO ARGAZKIA

ANTXOA-SARDINA BETE TXALUPAK PORTU ZAHARREAN, 1957

1957ko urriaren 15ean, Ereagako hondartza eta Portu Zaharra antxoaz eta sardinaz gainezka aurkitu zuten goizean goiz hara bertaratuek. Egunkariak jasotako adituen iritziz, ohiko etsai atunetatik ihesi sartu zen arrain-sarda badian. Arrantzaleak eta zer arrantzan egin hurreratutako andana pozarren ibili ei ziren: tripak betetzeko zein mokoilo edo karnatarako itsasoak bidalitako oparia zela-eta! Diotenez, 46 arrantza-ontzi eta hamaika txalupa, potin eta batel irten ziren barrua betetzeko asmoz... Santandertarrak ere etorri ei ziren... Ostera, argazkikoak ere hainbatek ezagutuko ditu, horra hor Portu Zaharreko eta inguruotako aurpegi ezagunak... o



Ezker-eskuma: 1) ? Cortina, 2) ? Dominguez, 3) ? Olabarria, 4) Isabel Seco Sesumaga, 5) Otabi ?, 6) Inaz, 7) ? Urrutia, 8) Joseba Cortina (GB), 9) Antonio Onaindia (GB), 10) Pedro Seco eta 11) Luis Onaindia

ENRIKE RUBIÑOS REZOLA > Vendetta taldeko bateria-jotzailea

“Musikatik bizitzen jarraitzea da nire ametsetako bat”

Testua: Iker Rincon Argazkia: Saioa “Gauilunak”



Defini egizu zeure burua berba bitan.
Festazale amorratua.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Txikitik *El ultimo mihicano* filmagaz flipatzen nuen... kar-kar.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Bai, aitortzen dut: gidatzean whatsapp-a begiratzea.

Eta aitor dezakezun bizio bat?
Brasan egindako haragia, berdin zait zein, dena goxo-goxo gelditzen da.

Eguna ala gaua? Zergatik?
Gauetz hasi eta egunez bukatu, edo are hobe, egunez hasi eta hurrengo egunean bukatu... kar-kar.

Baduzu ezizenik? Zer dela-eta?
Bai, nahiz eta Enrike deitu, Enrikko deitzen didate, Vendetta-ko Jabierok jarri zidan, berari galdetu behar...

Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Utzikeriagatik egindako edozein.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?
Zenbait politikari lapur eta bankako zenbait lapurren kartzelaratzeara.

Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat?
Aspaldi jotzen nuen talde batekin ari nintzela, kaxa-ko partxea apurtu zitzaidan, eta kontzertuan bertan besteek sarrera luze xamar bat egiten zuten bitartean partxea aldatzea lortu nuen.

Kontzertuak emateko lekuri onena?
Ikuslegoa sutsu agertzen den edozein toki, berdin du taberna bat, gaztetxe bat edota munduko festibalik handiena izan.

Non gura zenuke kontzertu bat emon? Zergatik?
“*La Diabla*” kantua Mexiko D.F-ko Zocalo enparantzan kantatzen dudanean egunean zoriontsua izango naiz.

LABURREAN—Enrike Rubiñosek (Tolosa, 1977), Enrikko ezizenagaz ezagunagoa dena, musika du bizi eredu. Bere aita musikaria zenez, mundu horretan murgiltzea otu zitzaion, “*nire kabuz, bere presiorik gabe*”. 2006an, Skalariak taldean sartu zen baterian aritzera. Hiru urte beranduago, talde horretako beste hainbat kidegaz batera, Vendetta taldea sortu zuen. Orduetik, hiru disko kaleratu dituzte, eta aurreratu duenez, abendurako euren laugarren lana argitaratu eta horren aurkezpen-birari ekingo diote.



UDA GOIENNEKO OSTERA



GARI-MALDANBERA

GETXO

AZAROAK 9, 19:00etan
ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLA
SARRERA: 8 € SARRERA SALMENTA:

SOLASALDIA:
GARI AZAROAK 5 20:00etan
VILLAMONTE KULTUR ETXEA



JAINKO TXIKI eta JOSTALARI HURA
BALMASEDA
KLARET ANTZOKIA
AZAROAK 15, 20:00etan
Sarrera: 8 €



ANNE ETCHEGOYEN eta AIZKOA ABESBATZA
BILBO
BBK ARETOA
AZAROAK 22, 20:00etan
Sarrera: 12 €



NAPOKA IRIA eta ANARI
BILBO
KAFFE ANTZOKIA
AZAROAK 27, 21:30ean
Sarrera: 8 € aurretik 10 € bertan



PANKREAS
IGORRE
LASARTE ARETOA
AZAROAK 29, 20:00etan
Sarrera: 6 €

ANTOLATZAILA:



BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:





GETXO ARTE

7-9*.11.2014

**SALÓN DE PRÁCTICAS CONTEMPORÁNEAS
PRAKTIKA GARAIKIDEEN ARETOA**

Plaza estación de Las Arenas
Areetako geltokia plaza

11>14.30 / 17 > 21.30 h

* último día hasta las 21:00 horas

* azken eguna 21:00ak arte

Entrada / Sarrera > 2,00€

ORGANIZADORES
ANTOLATZAILEAK



PATROCINADORES
BABESLEAK



COLABORADORES
LAGUNTZAILEAK

